



ARGIA



#2.639 | 2019 / 04 / 07 | 3,90 €

ZAPATISTEK 25 URTE

Ospakizun mingotsa Chiapasen



AEK, Topagunea eta Kontseilua etorkizunari begira

24 | EUSKARA



"Katalunian edozer izan daiteke matxinada"

29 | JESÚS RODRIGUEZ



Milaka euskaldunentzat kontzentrazio-esparrua

34 | GURS-EK 80 URTE



DANI BLANCO

MAHAI-INGURUA

HIZKUNTZ ESKUBIDEAK, NORENAK?!

📍 Arrasate Kulturate

📅 Apirilak 4 🕒 19:00

Mahaikideak:

Eneka Alvarez, Arkaitz Zarraga

Moderatzailea:

Lander Arbelaitz

ARRASATE EUSKALDUN DEZAGUN

elkartarekin antolatua

HITZALDIA

KATALUNIAKO PROZESUA ETA GARAIPENAREN IKASBIDEAK

📍 Gasteiz Hala Bediren lokala

📅 Apirilak 5 🕒 18:30

Hizlaria:

Jesús Rodríguez

Directako kazetaria

HALA BEDI irratiarekin elkarlanean antolatua



VICTOR SERRI

Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 07 | GAIZKI ERRANKA
- 07 | EZ HANKA EZ BURU
- 08 | EKONOMIAREN TALAIAN

Iritziak

- 19 | DAVID BOU
- 20 | BEA SALABERRI
- 21 | AHOZTAR ZELAIETA
- 21 | BEÑAT SARASOLA
- 22 | FERMIN ERBITI

Finkoak

- 38 | BIZI BARATZEA
- 40 | ARGIA KOMUNITATEA
- 47 | DENBORAREN MAKINA
- 48 | KULTUR-KRITIKAK
- 50 | ZUZENeko EMANALDIA
- 51 | DENBORA-PASAK
- 52 | ARGi-KONTRA:
JEAN-FRANÇOIS CARON
- 54 | BERANDUEGI

SAILLEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK:
CLIPART COURTESY FCIT



DANI BLANCO

24 | HIRU BEGIRADA EUSKALGINTZARI

Korrikaren 21. edizioa iritsi den honetan, Onintza Irureta Azkune euskalgintzaren erronkei buruz mintzatu da ondorengo hiru eragileekin: AEK, Topagunea eta Kontseilua.

Elkarrizketak eta erreportajeak

10 | NET HURBIL
EZLN-k 25 urte: ospakizun gazi-gozoa Chiapasen
Jérôme Baschet

14 | JON ZABALETA, MARRAZKILARIA
"Nirea urte askoan tabarnan erakustea izan da"
Miel A. Elustondo

29 | JESÚS RODRIGUEZ, KAZETARIA
"Eraldaketa sozialaren borroka eta independentzia erabat lotuta doaz egun"
Z. Oleaga

34 | HISTORIA
Gurs 80 urte: Pirinioen magalean gatibu
Josu Chueca

36 | ARGIAK 100 URTE, HEDOI ETXARTE
"Voxi ez, haren diskurtsoa egiten duenari begiratu"
Xabier Letona

42 | KULTURA
1963-1993: Euskal zarataren genealogia txiki bat
Jon Urzelai

44 | PAXKAL IRIGOYEN, MUSIKARIA
"Publikoaren isiltasuna gehiegizkoa ere izan liteke"
Gorka Erostarbe Leunda

Jabetza
Komunikazio Biziagoa
S.A.L. Ametzagaña Taldeko partaidea
Lehendakaria
Bego Zuza
Erredakzioa
Amaia Fernández, Amaia Lekunberri, Axier Lopez, Eneritz Arzallus, Estixu Eizagirre, Gorka Bereziartua, Jon Torner, Lander Arbelaitz, Mikel Asurmendi, Mikel Garcia, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Urko Apaolaza, Xabier Letona
Diseinua
Maitane Gartzandia
Argazkilaria
Dani Blanco
Produktzioa eta inprimaketa
Antza S.A.L.
Administrazioa:
Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarte
Salmenta
Idoia Arregi, Ixabel Bereziartua, Karlos Olasolo, Maite Arrieta, Olatz Korta
Idazkaritza
Aloña Soraluze, Bego Zuza

Web garapena
Asier Iturralde
Informatika
Iametzta interaktiboa, S.L.
Lege gordailua
SS 837-2012
ISSN
0213-909X
Batzorde parekidea
72562 E

GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

Gipuzkoa
Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria
Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa
Xalbardin baita. 64122 Urruña
Nafarroa
Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina
31001 Iruñea

Posta elektronikoak
komertzial@argia.eus
harpide@argia.eus

Telefonoa
943371545

Ametzagaña taldeko kidea da
Argia honako enprekin batera:

antza
KOMUNIKAZIO GRAFIKOA

iametzta
interaktiboa

ADUR software
productions

Doan eta libre

Argiako edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitara ditzakezu, gure egiletza aitortu eta baldintza beretan eginez gero. Are gehiago, gure edukiak ahalik eta gehien zabaltzea nahi dugu.



Lizentzia hau soilik ARGIAren edukientzat da baliagarria, baliteke beste testu eta argazki batzuk lizentzia hau ez izatea.

OLATUKOOP

EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN SAREKO KIDE



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

(HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDEZAK DIRUZ LAGUNDUA)

Munduko harresirik hilgarriena

ARGAZKIA | JR
TESTUA | AXIER LOPEZ

AEBek eta Mexikok 3.169 kilometro konpartitzen dituzte. 1994tik lur horien herena bost metroko garaiera duen hesi batek bereizten du. Azken 25 urteotan 10.000 lagun inguruk (heriotza horien kontaketa ofizialik ez da) galdu du bizitza muga eta hesi hori gainditu nahian, 2018an 260 pertsonak. Mugaren beste bi herenak hesitu nahi ditu AEBetako presidente Donald Trump-ek. Areago, pasa den astean adierazi du mugaren pasabide irekiak ere ixteko prest dagoela, baldin eta Mexikoko Gobernuak "dokumenturik gabeko" pertsonen etorrera ez badu eteten. Irudian: JR artista frantziarrak egindako salaketa-artelana, Tecaten (Mexiko) Kaliforniarekiko muga.







90 URTEREKIN HIL DA
AGNÈS VARDA ZINE
ZUZENDARIA. NOUVELLE
VAGUE KORRONTE
ZINEMATOGRAFIKO
ERAKUSGARRI
NAGUSIENETAKO BAT
ZELAKO GOGORATUKO DU
ZINEMAREN MUNDUAK

Gorka Bereziartua (ARGIA)



EMAKUMEEN ESKUBIDEEN
ALDEKO BORROKAREN
FIGURA HISTORIKOA ETA
NOUVELLE VAGUEREN
AITZINDARIA, OHOREZKO
OSCARRA JASO ZUEN
LEHENENGO EMAKUME
ZUZENDARIA ERE IZAN ZEN

@NadalDiplo



IZORRATU NAU ALBISTEAK.
EZ DAGO BERE PELIKULARIK
ZERBAITENGATIK GUSTUKO
EZ DUDANIK. BETI EMOZIOAK
TRANSMITTITZEN ZITUEN,
PASATU GABE ETA KURSI
IZAN GABE. ETA URTEEN
PODERIOZ, GERO ETA UMORE
GEHIAGO SARTU ZUEN.
UMORE SOTILA, ITXURAZ
NAIFA, BAINA INOIZ EZ HUTSA

@Tyrexito



LOREAK AGNÈS VARDAREN
ETXEKO ATE AURREAN.
ZINEASTA HANDIAK
BALORATZEN DAKIEN HERRIA,
HERRI JAKINTSUA DA

@robber_ryder



HALA BEDI

Mozal Legeaz zigorturiko lehen kazetariaren auzia

ARGIA

Hala Bedi irrati Mikel Saenz de Buruaga kazetariari "Herritarren Segurtasun Legea" (Mozal Legea izenez ezaguna) aplikatu zioten Ertzaintzak eta Eusko Jaurlaritzak, 2017ko maiatzean Errekaleorren polizia operazioa grabatu izanagatik. Alegazioetarako bide administratibo guztiak agortu ostean, Hala Bedi 2018ko apirilean iragarri zuen auzitegitara joko zuela, "informatzeko eskubideari eginiko eraso delako". Apirilaren 2an izan da epaiketa. Ertzaintzak Mozal Legeaz zigorturiko lehen kazetaria da Saenz de Buruaga.

Eusko Jaurlaritzako Industria sailaren aginduz Errekaleor auzoari argindarra moztu zion Iberdrolak 2017ko maiatzaren 18an. Herritarrek erresistentzia bakesuz egin zioten aurre Ertzaintzaren operazioari eta bertatik informatzen aritu ziren Hala Bediko bi kazetari. Saenz de Buruaga bere lana egiten ari zela, ertzain batek eraso egin zion eta mugikorra txikitu. Gainera, kazetariari zigorra ezarri zioten ertzainek.

2017ko uztailean Jaurlaritzaren jakinarazpen bat jaso zuen kazetariak, Mozal Legea urratu izanagatik. Oinarria "Ertzaintzak eginiko txosten faltsu bat" dela adierazi du Hala Bedi eta Jaurlaritzari kritika gogorra egin dio, "eskubide zibil eta politikoak urratzen dituen lege injustu bat aplikatzeagatik, Eusko Legebiltzarrak ez aplikatzeko konpromisoa hartu zuenean". "Muntaia polizialari babes instituzionala" eman izana ere egotzi dio. "Nola da posible txostenetan ez agertzea kazetaria dela, berak kazetari txartela erakutsi zuenean?". "Inongo unetan ez zion ertzainak jarrera desegokiagatik kargurik hartu kazetariari" dio Hala Bedi.

Isunaren aurrean, Hala Bediko asanbladak erabaki zuen berau desobeditzea, ez ordaintzea, eta behar beste errekurtsio jartzea. Sei jakinarazpen ofizial eta bost errekurtsoren ostean, Jaurlaritzako Segurtasun sailak kazetariari jakinarazi dio ebazpena, zeinak isuna berresten duen. Bidea "kafkiarra" izan dela adierazi du Hala Bedi.

Edan Coca-Cola



SANTI LEONÉ

Afera bizkor laburbildu beharko banu (1.800 karaktereko zutabe batean, adibidez), esaldi hau hautatuko nuke: “Ostraka batean *Edan Coca-Cola* paratuko balu, karbono 14ko probek euskarriaren antzinakotasuna frogatuko lukete, frogatzekotan, baina ezinezkoa litzateke testua III. mendekoa izatea”. Alberto Barandiaranek erran zuen, Sautrelan, 2011ko urtarrilean. Hasier Etxeberria zenak, zorrotz, berehala bota zion galdemodua: “Eta non jartzen du, bada, *Edan Coca-Cola*”? Zenbait adibide aletu zizkion orduan gonbidatuak, argi eta zehatz.

Veleia afera liburuaren kariaz izan zen elkarrizketa. Bere garaian, miresmenez irakurri nuen Barandiaranen lana, eta oraindik iduritzen zait euskaraz dugun saiakera eta ikerlan eredugarrienerarikoa. Beraz, aise ulertu nuen –aise ulertzen ahal zuen nornahik– zer-nolako ekarpena egin zion liburuak euskal kulturari; eta zer-nolako ekarpena Sautrelari, egilea gonbidatzeak.

Zailxeago egiten zait, ordea, igartzea zer ekarpen klase egin dioten Elexpururen zenbait teoriak euskal kulturari, eta zer ekarpen klase teoria horiek zalantzan batera jarri gabe hedatzeko aukera emateak non eta Artefaktuan, serio izan behar lukeen literatura saio batean alegia. Homeopata bat gonbidatuko genuke medikuntza saio –berriz diot, serio– batera? Bada, nonbait, ez da problemarik hauspotzeko betiko topiko zaharkituen inguruan –gure hizkuntzaren jatorriaren misterioa, hizkuntza zaharra edukitzeak gure herriari ematen dion harrotasuna, gure autoestimua– dabilen norbait.

Saioaren akaberan, gogoeta morala egin zigun Elexpuruk: galduak gabiltza sukaldaritza goiti eta sukaldaritza beheiti; bizkarra eman diogu gure nortasunari, munduari benetan eskaintzeko dugun altxor zaharrari. Gastronomía ongi dagoela, alegia, baina, edatekotan, edan ezazue III. mendeko Coca-Cola. ●



ADUR

“AURTENGOA SORPRESA IZAN DA”

IÑAKI VIÑASPRE, BERTSOLARIA

Iñaki Viñasprek jantzi du Arabako Bertsolari Txapelketako txapela, buruz burukoan Manex Agirrereren aurretik geratu ostean. Atzetik sailkatu dira, hurrenez hurren, Xabi Igoa, Oihane Perea, Peru Abarrategi eta Aroa Arrizubieta. Aurtengoa sorpresa izan dela eta arabarrei txapel bat zor ziela adierazi du Abetxukuko bertsolariak. Behin txapela buruan, hala amaitu zuen saioa: “Uste dut badakitela.../ Iratxe eta Ekaitz argi dut/ hau merezi duzuela,/ eta etxean nahi zaituztegu/ txori libreak bezela”. **EITB.EUS (2019/03/31)**



Pobrezia, gure gazteriaren patua?



JUAN MARI ARREGI

Egoera ekonomikoan eta enpleguaren kalitatean ez bada funtsezko aldaketa bat gertatzen, egungo gazteria pobrezia eta bazterkeria sozialean eroriko da seguru. Azkenaldian Espainiako Estatuan agertu diren estatistika eta ikerketek hala diote. Tamalez, ez ditugu Hego Euskal Herriko egoerari buruzko datu zehatzak.

Estatistikek diote Estatu mailan enplegu tasa hazten ari den arren, belaraldi berriek ez dituztela kontratu eta berme hobek izaten, eta independizatu ezinean jarraitzen dutela. Kontratuak egun batekoak edo, gehienez, astebetekoak izaten dira, eta prekarizatze giro horretan saiatzen dira bizirauten. 16 eta 29 urte bitarteko herritarren artean ordainsariak beharrekada itzela izan dute, eta bizi-proiektu bat egitea eragotzi diote jende horri, batez besteko soldatak 8.000 eta 16.000 euro artekoak baitira. 20 eta 24 urte bitartean dituzten gazteen %8 baino ez da etxetik joaten, European batez bestekoa %30 izanik. 25-29 urteen mugan daudenen artean %39 dira etxetik joaten direnak, European aldiz %59. Eta okerrago dena, sei milioi pertsona baino gehiagok osaturiko kolektibo hau, atzean geratzen ari da sozialki. Hamar gaztetik ia lau pobrezia arriskuan daude.

Egoera larria da eta botere publikoek konpromiso gehiago erakutsi beharko lukete konponbide bat aurkitzeko. Gazteria indartsu, dinamiko eta berritzailek ez duen gizarteak ez du etorkizunik, are gehiago desoreka badu oinarri. Gizarte bera aldatu behar da, gazteek honen baitan aurrera egin dezaten. Horretarako, justizia, berdintasuna eta elkartasuna defendatuko dituen sistema ekonomiko eta politikoa eraiki behar da. ●



Bidegabeak eta moralkeria zaleak

MIKEL ASURMENDI

Eusko Jaurlaritzak, Urkullu buru, "bidegabea izan zen" aitortzea eskatu ohi dio ezker abertzaleari. ETaren jardunaz ari da. Esaldia *mantra* da politikagintzan. Errepikatzearen poderioz, batzuen "bidegabekeriak" beste batzuenak kuku-tzeko "metodologia" eraginkorra. Komunikazio larderiatsua boterearen arma izaki.

"Bidegabea izan zen" kontakizunean sartu eta justizia egin behar da. ETak eragindako kalteak bidegabeak dira. Pertsonak hil eta legedia – "arrotza" – urratu zuen. ETak irteera duinik gabe amaitu zuen jarduna. Berea galtzaileen bidea da.

Alta, galtzaileak bidegabeki ari ziren bitartean, komeni da ere beste "bidegabekeriak" oroitzea: GALen hilketak, *Egin* eta *Egunkariaren* itxierak. Bateragune auzia. Torturak: 5.000 jende. Ertzaintzaren eskutik ere bai. Lagin batzuk baino ez dira.

ETaren garaiko beste *mantra* bat: "Biolentziarik gabe dena da posible politikan". Hots, Espainiako Konstituzioa ez da absolutua. Baina, Kataluniako prozesua helduzen eta kataluniar independentisten bidea ez da bidezkoa. Areago, estatuaren argudioak –mantrak– nagusitu dira: "Erreboltariak biolentzia erabili dute". Estatuak erabakitzen du zer den "bidegabea" eta "zer ez". Altsasuko gazteek bi guardia zibilekin izandako liskarra terrorismotzat jo du Espainiako Auzitegi Nazionalak.

Iraganean gertatu zen gutzia errelatoaren bidez argitu daitekeela sinestea pantea da. Politikoki maltzurra da "bidegabeki" jokatu zutenen oinordeko politikariei "bidegabea izan zen" exijitzea. Espainiako Estatuaren babespean bidegabekeriak egin zituztenei ez zaielako neurri berean "bidegabea izan zen" aitortzea exijitzen. "Galtzaileak", bidegabeak, legediaren bidean sartu dira eta "bidesaria" ordaintzera behartu dituzte. Ostera, bideko nagusiek euren konstituzioa dute "bidesaria"-ren neurrikoa, baita 40 urtez "bidesaria"-ren merke-zurreko politika egin dutenek ere.

Bizitza paradoxa da eta politika are paradoxikoagoa. ETaren "oinordeko politikoei" jeltzaleek hartu zuten "bide zuzen" politikoari uko egin zioten urte luzetan, hau da, Gernikako Estatuaren bideari. Orain, bidea bideragarria dela onartu dutenean, Espainiako Konstituzioaren bidez eratorria, ez da aski. Hauteskundeak datoz. 40 urtetan irabazleak ez dira ase. Bidegabea izan zen, eta bidegabea da ere irabazleen moralkeria ezarri nahi izatea. ●



GURE ESKU DAGO

ERABAKITZEKO ESKUBIDEA FASE BERRIAN

BILBO. Fase berria aurkeztu du Gure Esku Dagok Bilboko Euskalduna jauregian. Besteak beste, kideak bazkide bilakatuko dira aurrerantzean eta bozeramaile berriak izango ditu mugimenduak: Amalur Alvarez eta Josu Etxaburu. Erreferendum bidez erabakitze herri ekinaldi bat bultzatzea du helburu GEDEk, datozen hilabeteetarako. Katalunia ere gogoan izan zuten ekitaldian.

KOLONBIAKO INDIGENAK 15.000

indigena mobilizatu eta errepideak moztu dituzte Kolonbian, 15 egunez Cauca eskualdean egin duten minga-n (auzolana). Gobernuekin sinaturiko akordioak eta bake prozesuan hitz emandakoak errealitate bihur daitezzen ari dira borrokan.

10 lagun hil eta dozenaka zauritu dira egunotan, poliziarekin izandako istiluetan.



Gazteek kirolean euskaraz gehiago egiteko gakoak

JON TORNER ZABALA

Soziolingustika Klusterrak *D ereduko kirola* ikerketa burutu du, 10 eta 16 urte arteko gazteen eta haien entrenatzaileen hizkuntza-portaerak hur-biletik ezagutu eta euskararen erabilera sustatzeko gakoak identifikatzeko. Zaramaga Pilota Elkartean, Aixerrota Boleibol Taldean, Padura Saskibalo Klubean, Realean eta Zarautz Eskubaloi Taldean egin du ikerketa, EHUrekin, Urtxintzarekin eta Euskaltzaleen Topagunarekin elkarlanean.

“HIRUGARREN ESPARRUA”

Egileen hitzetan, kirola “hirugarren esparru” gisa indartuta, aukera legoke eskolako hizkuntza-ohituren eta kalekoen arteko lotura egiteko. “Aukera emango luke gazte askok eskolan egin duten ahaleginari jarraipena emateko, eta hizkuntza-berdintasunaren ikuspegitik euskarazko erabilerarako duten eskubidea modu praktikoan handitzeko”.

ENTRENATZAILEA ERREFERENTE

Jokalari gaztetxoentzat euren entrenatzaileak erreferente oso garrantzitsuak direla diote ikerketaren egileek, eta euskara gehiago erabili ahal izateko orduan erabateko garrantzia dutela. Halaber, klubetako arduradun eta gurasoen egitekoa da “euskararen erabilerari garrantzia ematen dion giroa” sortzea. Euren eta jokalarien arteko lotura entrenatzaileek egingo dute.



ETXE KOMUNITARIOA. Fase ugariaren ostean, abiatzeko gutxi falta zaio gazteentzako lehenbiziko etxebizitza komunitarioari Erreterian. Logelak zozketatu berri dituzte, ekitaldi publikoan. Eraikina Udalak jarri du eta elkarbizitzarako konpromisoak eta antolaketa gazteek eurek finkatu dituzte.



LGBTI+ KONTSEILUA. LGTBI+ Kontseilua sortu du Nafarroako Gobernuak, 2017ko LGTBI+ pertsonen berdintasun sozialerako legeak agintzen zuena betetz. Besteak beste, LGTBI+ taldeak, gazteria, adineko pertsonak, sindikatuak eta FNMC egonen dira ordezkaturako kontseilu berri honetan.



SEXU ERASOAK. Lapurdiko Mediabask kazetak zabaldu duenez, hiru emakumek sexu jazarpenak jasan zituzten Baionako musika ikastaldi batean iragan uztailan. Salatua 76 urteko gizona da, ikastaroaren zuzendaria. Fiskalak gertatuaren gaineko ikerketa jarri du abian.

EZLN-K 25 URTE OSPAKIZUN GAZI-GOZOA CHIAPASEN

Jérôme Baschet (1960) historialaria da. Frantziako EHESS Gizarte Zientzien Goi Ikasketen Eskolan irakasle eta ikertzaile aritu ondoren, gaur egun irakaslea da Chiapaseko unibertsitate autonomoan. San Cristobal de Las Casasetik kontatu du matxinada zapatistaren 25aren ospakizun mingotsa.

JÉRÔME BASCHET

Chiapaseko zapatistek ospatu berriak dituzte 1994ko urtarrilaren 1eko matxinadaren 25 urteak. Altxamendu armatu harekin “*Ya basta!*” esan zioten herri indigenek bostehun urtez jasandako menderakuntza kolonialari, Partido Revolucionario Institucional alderdiaren sei hamarkadatarako *diktadura perfektuari*, NAFTA Ipar Amerikako Merkataritza Librerako Itunak ekarritako politika neoliberaleari eta, era zabalago batean, erakutsi zuten gezurra zela kapitalismo ahalguztidunaren eta pentsamendu bakarraren propagandistek aldarrikatutako *historiaren amaiera* delakoari.

Matxinadak autonomia politikozko esperientzia oso nabarmen bat eraiki du, 1994ko abenduan 30 udalerrri autonomoren aldarrikapenetik abiatu eta 2003an erregio mailako Gobernu Oneko bost Kontseiluen osaketarekin. Geroztik zapatistek beren gobernu eta justizia eredu propioak garatu dituzte, osasungintza eta hezkuntza sistema propioak eta produkzio jarduera propioak ere bai; lurraren jabego kolektiboan eta auzolan modu berrien garapenean oinarritu dira autonomiaren antolaketaarako sostengu materiala lortzeko.

Zapatistek autonomiarekin berresten dute beren autodeterminaziozko bizi-modua, komunitatearen izatea sendotu eta hori ukatuko luketen erabaki kapitalisten arbuiatuz. Autonomia da ere au-

togobernu herrikoiairen moduak Estatu mexikarretik erabat etenda garatzeko ahalegina.

Esperientzia hau burutzen ari dira Britainia adinako zabalera daukan lurralde batean [Euskal Herriaren lurraldea baino handixeagokoa] eta etengabe garatuz doa duela mende laurdenetik hona.

Motiboak baditugu, beraz, esateko esperientzia zapatista dela izar oso distiratsu bat gure itxaropenen eta desioen ortzian –gehituz, izar hori behatzez ukitu eta bere biztanleekin topo egiteko modukoa dela–. Horregatik, bide luzea egirik Lakandonako oihanera, La Realidad *caracol*-eraino 25. urteurrena ospatzera iritsi zirenak prest zetozen gozatzera denen poza, esperientzia errebelde honek hainbeste eraso gaudituz ahal izan dituelako, denboraren higadurari aurre egin diolako eta ezin ukatuzko sormena erakutsi duelako gaurdaino.

Alabaina, egunok ez ziren inondik ere izan hain festazkoak. Moisés komandante-ordeak aho-bizar barik esan zuen: “Ez daukagu 25. urteurrenaren ospakizunetarako betarik”. Hain zuzen ere, egoeraren mamia ez zuten azaldu zapatisten bozeramailearen hitzek baizik eta EZLNk bere izaera militarra gogorarazteak: armada zapatista ez baita desagertu, azken bi hamarkado-

tan bigarren plano batera gibelatu arren.

Komandanteak iritsi zirenean beren zaldietan, konta ezin ahala zapatista uniformedun sartu ziren *caracol*-ean plaza nagusia bete arte, eskuetan zekarzkiten makilekin zarata handia eginez, urratsen erritmo berean. 3.000 zapatista denetara, bost eskualde autonomoetatik etorriak, EZLNren erreserbisten zati bat. Zapatisten lurraldeetara lehenbizikoz etorritakoek pentsatuko zuten 1994ko altxamendua ospatzeko errito ezagunen bat ote zen. Ez zen batere hori, ordea: abenduaren 31ko festak militarren presentziarik gabe egin ohi dira, zapatisten elkarretartze gehienak bezala.

Uniformedunak noiz edo noiz ikusten ahal dira segurtasun lanetan, batik bat La Realidaden, 2014ko maiatzean Galeano asasinatu zuten geroztik, baina abenduaren 31 honetako erakustaldi militar baten parekoa aurkitzeko historian atzera egin beharra dago 1994ko udaraino, Guadalupe Tepeyacen Biltzar Nazional Demokratikoa bildu zenekora –egia da orduan soldadu zapatistek arma eta guzti desfilatu zutela, ñabardura inportantea–. Ospakizun zapatisten izaera ez-militar hori logikoa da, zeren eta 1994ko urtarrilaren 12ko su-etenaz geroztik EZLNk erabaki baitu armak modu erasokorrean ez erabiltzea, horren orde zehentasuna emanez autonomiaren erakuntzari, eta ahalegindu da ez erantzuz-



LA REALIDAD CARACOLEAN EZLN-REN ERRESERBISTETATIK 3.000K DESFILATU ZUTEN: "GURE BILA DATOZ" OHARTARAZI ZIEN MOISES KOMANDANTE-ORDEAK.

ten armada federalak bezala talde paramilitarrek eginiko probokazioei.

Oraingoan hautatutako 'eszenografia' eta lekuarekin zapatistek beren abentura modu publikoan hasi zuten garaira itzultzea adierazi zuten. Moises komandante-ordearen mintzaldi zorrotz eta gordinak gauzak bere lekuan jarri nahi izan zituen, Mexikoko gobernu berriaren aurrean EZLNk daukan jarrera azalduz. Andres Manuel Lopez Obrador lehendakari hautatzeak sortutako egoeraren analisia ez da inorentzako ezustekoa, egia, joan den abuztuan aurreratu baitzuten. Baina oraingoan mezua bidali diote joan den abenduaren 1az geroz agintean dagoen botere berriari. EZLNk ez dauka inolako itxaropenik lehendakari berrian: gero eta *hacienda* handiagoa den kapitalismo globalizaturen kontramaisu bat gehiago baikiz da, 30 milioi boto emaila mexikarrari alderantzizkoa sinetsarazi arren.

Moises komandante-ordeak bere kritikak zentratu ditu lehendakari berriak aurrekoek baino kemen handiagoz sustatzen dituen proiektuetan. Lopez Obradorrek proiektuok justifikatzen ditu aurrerapenaren, enpleguaren eta txirotasunaren aurkako borrokan, bere erretolika ezagunarekin: kontra egiten dioten guztiak omen dira kontserbadoreak, atzerakoiak, ongizate kolektiboaren etsaiak, ez bada primitibista anakronikoak. Baina herri indigenentzako –eta ez soilik haien-

tzako- horrelako mega-proiektuek funtsean dakartzate beren lurren lapurreta eta beren bizimoduaren suntsiketa azkarra. "Ohartzaren gara oraingoan gu suntsitzera datozela, herri indigenok suntsitzera", laburbildu du Moisesek.

Proiektu handiotako batek ukitzen du Tehuantepec istmoa. Honen baitan, haize-erroten parkeak zabaltzea, baina baita gune ekonomiko berezi baten sorrera eta ozeanoen arteko garraio bide multimedial batena ere, Panamako kanalari konkurrentzia egiteko –antzinako proiektu bat gobernurik neoliberalenek ere sekula gauzatu ezin izan zutena–.

Beste proiektu batek aurreikusten du landatzea milioi bat hektarea fruitu arbola eta zuhaitz, batik bat Mexikoko hego-ekialdean (Oaxaca, Chiapas, Tabasco eta Yucatan). Honek piztu ditu susmoak Adolfo Romorekiko: Lopez Obradorren eta patronalaren arteko harremanen giltza dauka eta Mexikoko agro-industriako gizon ezaguna da, eta Chiapasen dauka urtean 20 milioi papaiondo ekoizten dituen mintegi bat.

Baina Moises komandante-ordeak batik bat nabarmendu du *Tren Maya* delakoa, Chiapaseko Palenque eta Yucatango gune turistiko eta arkeologiko nagusiak lotuko lituzkeena. Proiektuarekin areagotu nahi dute baliabide naturalen ustiapena penintsulan –jadanik 2000 eta 2016 artean 14.000 kilometro koadro oihan

eraitsia dute bertan– eta gune turistikoak biderkatu nahi dituzte, horrek dakartzan pribatizatzeko, lurraren hormigoizatzeko eta itsas hegiaren kutsatzearekin.

Lopez Obrador kexu baita turismoa orain artean Cancun inguruetan kontzentratu delako. Proiektua berez suntsitzailea izateaz gain –"bat, bi, hiru... ehun Cancun" ei da lehendakari modernizatzailearen eslogana–, hori iragartzeko modua probokazio ezin jasana da zapatistentzako. Izan ere, abenduaren 16an lehendakari berria Palenqueraino etorri, Roberto Barrios *caracol* zapatistatik oso kilometro gutxira, eta obraren hasiera ospatzeko Ama Lurraren omenezko sasi-errito maia bat egin zuen. Moisesek ironiaz esan zuen Lopez Obrador etorri zela Ama Lurrari bera suntsitzeko baimena eskatzera eta honek erantzun ahal izan balio pikutara bidaliko zuela... Proiektuari beren arbasoen izena ematea irain bat da zapatistentzako, eta errito maiaren parodia, iseka eta umiliazioa: Ama Lurrari egin zioten ezkutatzeko proiektuaz bertako biztanleei ez zitzaizela galdetu ere egin.

Izan ere, herri indigenen bizilekua diren eremuetan egin nahi dituztenez proiektuok, Lanaren Nazioarteko Erakundearen 69. itunak aurreikusten du –eta Mexikok berak berretsia dauka– bertako jendea aurretik galdeketa libre eta informatua egin behar zaiela. Bestela esanda, aginte berriak Ama Lurraren aurrean ma-



CHIAPASEKO ZAPATISTAK 25 URTEOTAN BEREN GOBERNU, JUSTIZIA, OSASUNGINTZA ETA HEZKUNTZA SISTEMA PROPIOAK ANTOLATU DITUZTE, LURRAREN JABEGO KOLEKTIBOAN ETA AUZO-LAN MODU BERRIETAN OINARRITUTA.

kurtzeko itxurak egiten ditu gero hura hobeto arpilatzeko eta Mexikon bertan ere lege diren jatorrizko herrien eskubideen nazioarteko akordioak urratzeko.

Olagarro kapitalistaren mehatxu latz honen aurrean, nahiz eta progresismo itxuraz mozarrotua etorri, zapatistek jarraera oso zorrotza erakutsi dute: “Ez diegu nahi dutena egiten utziko”, “Gu probokatzen baldin badatoz, geure buruak defendituko ditugu”, “Gure buruak defendituko ditugu, borroka egingo dugu behar baldin bada”. Aginte berriari igorritako ohartarazpena oso argia izan da eta horrek ematen dio esanahia hitzaldiaren aurreko erakusketa militarri: gure aurrean desfilatzen ikusi ditugun 3.000 jende horiek esan nahi dute prest daudela bizia emateko beren lurraldea eta eraiki duten autonomia defenditzeko.

Mezutik ez da ulertu behar borroka armatura itzultzen direnik. Orain beren buruak defenditzeaz ari dira, proiektu zapatistaren muinean dagoen autonomiaren eraikitze zibila defenditzeaz. Moisesek esan du: orain arte lortu dugun guztia gure ahaleginaren eta esperientziaren emaitza da eta “eraikitzen jarraituko dugu”. Autonomiaren esperientzia zibila jarraitzea da erronka, baina horretarako orain derrihorrezkoa ikusten da gobernu berriagan-

dik datozkien mehatxuetatik defenditzea, behar diren baliabide guztiakin.

Moisesen hitzaldiko beste zerbaitek ere eragin du hainbat esames. Zapatisten bozeramaileak behin eta berriro errepikatu du “bakarrik gaude” eta hori askorentzako muturreko gogorra izan da. Zer esan nahi zuen, EZLNk mende laurdenez bere inguruan josi dituen aliantza guztiak, Congreso Nacional Indígenaren bidez, Gobernuaren Kontseilu Indígenarekin, Mexikoko eta planeta osoko borroken sare izan nahi duen *La Sexta*-rekin, mundu osoan sortutako solidaritate talde guztiakin... hori guztia deusetan geratu dela? Ez dela lortu inertzia eta zatiketak gaintitu eta Mexikon bezala nazioartean “matxinada eta erresistentzien sareak” osatzen aurrerago iristerik?

Hitzaldi osoaren testuinguruan ulertu behar da zer nabarmendu nahi duen: bate-tik, zapatisten erabaki estrategikoa gobernu berriaren aurrean eta, bestetik, une erabakigarria dela esperientzia zapatistaren bidean. Mexikoko boto emaileek gehiengoz erabaki dute [Lopez Obrador hautatu dute lehendakari] eta ez diete kasu egin zapatisten ohartarazpenei. Baina “gaur bakarrik gaude” horrek oihartzun egiten dio “duela 25 urte matxinatu ginenean bakarrik geunden” esaldiari. Alegia, orduko erabakia

EZLNk bakarrik hartu zuela eta gaurkoa ere bai, Mexikoko aginte berriaren kontrako borrokarako prest egoteko erabakia soilik EZLNri dagokiola.

Baina zer dela eta erabaki hori? Zapatisten analisiaren arabera, Mexikoko aginte berria proiektu kapitalistaren sakontzea da, eskrupulurik gabe onartutako desaroilismoa dela tarteko, ez ikusia eginez klimaren beroketak eragindako kezka gero eta handiagoari eta argudio ekologikoez ia sekula kezkatu barik. Lopez Obrador ez den arren klima aldaketaren negazionista, bere jokatubidea ez dabil urruti Trumpenarenetik; bide batez esan behar da harreman oso adeitsuak dauzkatela biek.

Dudarik gabe, analisi horretan beren lekua daukate Latino Amerikan –batik bat Brasil, Bolivia, Ekuador eta Argentinan– azken hamabost urteotan gobernu progresista deituek erakutsi dituzten jokatubideek. Hauetan badiren arren zenbait alderdi positibo, bi baieztapen nagusi egin daitezke: alde batetik ekarri dutela mugimendu sozialen ahultzea eta nabarmenki indigenen borroketa, horretarako erabiliz kooptazioa, autonomia galtzea,



1994KO ALTXAMENDUA CHIAPASEKO INDIGENEK "ASKI DA" ESAN ZIETEN BAI 500 URTEKO KOLONIALISMOARI ETA BAI NEOLIBERALISMOAREN ERASO BERRIARI.

zatiketa eta autozentsura, eskuinari edo ultraeskuinari jokoa ez egiteko aitzakia-rekin; beste aldetik, dena salgai bihurtzeko eraso, inoiz ikusi ez bezalakoa -azpiegitura handi alferrikako eta kaltegarriak, estraktibismoa, lur lapurretak, harreman kapitalistek aski kontrolatzen ez dituzten bizimoduen suntsitzea, eta abar-. Argi esateko, *progresismoa* bihurtu dela eredu politikorik eraginkorrenetakoa -aldi baterako bederen- olagarro kapitalistaren indarra sendotu eta bere gose ezin aseari erantzuteko.

Zapatistek erabaki dute aurrea hartzea eta ez egotea zain politika horiek pixkanaka beren eragin hilgarriak noiz

erakutsiko -edo, behar bada, mexikarrak ere noiz desengainatu eta hurrengo etapak irekiko, Argentinako edo Brasilgo eredu jarraituz, bidea irekiz aukera ultra-liberali edo eskuin muturrera makurtuz-. Zapatistek desafio egiten diote aginte berriari, aukeratu dezan hauteskondeetan hartutako bi konpromiso solemneen artean: bat, iragarritako azpiegitura proiektu handiak aurrera ateratzea; bi, inoiz ez zanpatzea herri mexikarra. Bakoitza zein aldetan dagoen aukeratzera behartzen dute. Eta, azkenik, zapatistak prestatzen dira defenditzera mende laurdenez eraiki dutena, autonomia errebelde baten es-

perientzia zeinaren handitasunak eta erradikalitateak ez baitute pareko handirik munduan.

Eta guk, zer? Konformatuko gara erreakzionatu gabe ikustera esperientzia hau nola mehatxatzen eta behar bada erasotzen duten? Arrisku hau, gainera, gertatzen ari da Siriako Kurdistaneko esperientzia ere larriki mehatxatzen dutenean AEBen erretiratzeak eta Erdogan-T-rump ententeak. Lagun argentinaren batek idatzi duen moduan, zapatismoa gabe -eta gehitu dezagun, Rojavako konfederalismo demokratikoa gabe- mundu hau gaur dena baino ere askoz beldurgarriagoa bailitzateke. ●

**ZINKUNEGI
OPTIKA**

Hernani 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com

f t



Jon Zabaleta

“KOLOREAREN MAISUA”, ANTTON OLARIAGAK DIOENEZ



NIREA URTE ASKOAN TABERNAN ERAKUSTEA IZAN DA



Hormak bete irudi ziren orain dela gutxi Azkaingo Xoko Ona ostatuan. Ez zen artistaren ohiko erakusketa, artelan bat hemen, bestea han doi paratuak. Hormak luze-zabal, goi eta behe ageri ziren Jon Zabaletaren marrazkiz beteak, bizi osoan osatu duen unibertsoa bistara. Harpe margotuetara itzulera zen. Nekez errepikatuko den irudia.

TESTUA | MIEL A. ELUSTONDO
ARGAZKIAK | ZALDI ERO

Zer diozu, ziklo bat itxi duzula Azkaingo ostatuan egin duzun erakusketarekin?

1975eko bukaeran hasitako bidea itxi dudala, horixe! Urte haren bukaeran Parisen nintzen. Franco hilzorian, eta jendea hara eta hona zebilen. Ni, Ingalaterrara nindoan, beste lagun batekin batera. Baina Parisen ere banuen lagunik, eta haraxe egin nuen. Han, berriz, jende gehiago ezagutu nuen, errefuxiatuak batzuk, lanean beste batzuk; Luzien Etxezaharreta, esaterako, han zen. Marrazkiz beteta nindoan, eta, baten batek *Liberation* egunkariarekin harremanetan jarri ninduen. Haiek nire marrazkiak ikusi eta segituan: “Zu euskalduna zara, ezta?”. Lehenengo gauza esan zidatena. “Kontatzen dituzunak euskal gaiak dira. Guk noizean behin argitaratzen dugu Euskal Herriari buruz.

Nahi baduzu, hantxe sartuko ditugu zure marrazkiak. Aldian, bat”. Erregioari eskainitako orrialdeak ziren. *Régionale*. Aldiro marrazki bat argitaratzea gutxi iruditzen zitzaidan, ordea, eta *Le Canard Enchaîné* -ra joan nintzen. Aldizkari satirikoa omen zen. Abertzalea nintzela ikusi zutenean, ezer ez. Nire lana, hala ere, guk bizi genuena kontatzea zen. Eta, gainera, hitzik gabeko irudia zen nirea, frantses kulturari zegokiona.

Nondik zetorkizun irudiaren frantses kultura hori?

Baserrira etortzen zitzaizkigun aldizkarietatik. Etxekoak baserrietik plazara jaitzen zirenean, azokara, batzuetan baten batek aldizkariak erregalatzen zizkieten, frantsesak batzuk, eta han hitzik gabeko irudiak agertzen ziren. Arte hutsa iru-

ditzen zitzaidan hura. Egia esan, hitzik gabe kontatze hori, artea iruditu zait beti. Frantzian tradizio handikoa da. Eta, oraindik orain, udazkenean, Azkainen egin nuen erakusketa ere asko gustatu zitzaion jendeari. Ez ninduten ezagutzen, baina argazki erakusketak eginak zituzten, eta aldatu egin nahi zuten formatua. Donibane Lohizuneko Lascaray argazkilariak nire berri eman zien, joan nintzaien, erakutsi nizkien marrazkiak, eta liluratuta geratu ziren: “Hau, gustatzen zait. Hau ere bai. Hau ere bai...”. Orduan, Vincennes etorri zitzaidan gogora.

Vincennes?

Bai, Pariseko garai hura, Vincennesko unibertsitatea, 1976a. Artista bat horman irudiak marrazten, eta ikusleak irudi haiek irakurtzen. Marrazkiak, or-



Jon Zabaleta Larburu

HERNANI, 1950

Txikitatik da marrazkilari. 1971tik 74ra, berriz, Oteizak eragindako Debako Arte Eskolan ikasi zuen. Hamaika aldizkaritan ageri dira Jon Zabaletaren lanak: *Zeruko Argia*, *Anaitasuna*, *Hitz*, *Berriak*, *Garaia*, *Habe...* Baita *Egin* eta *Euskaldunon Egunkaria* kazetetan eta *Euskadi Sioux* eta *Ipurbeltz* agerkari grafikoetan ere. Makina bat haur liburu ilustratu ditu. Komikigintza, zinema esperimental eta mimo-ikusketak ere ez zaizkio arrotz. Disko azalak hamaika ditu ilustratuak. *Manuel-memoria* publikatu zuen 2005ean, bere obra jasotzen duen katalogoa. 2014an, Dabilen Elea saria jaso zuen.

dea, han eta hemen, panelak bete irudi. Mozkortzekoa zen hura. Oso gauza ederra. Eta horixe esan nien Azkaingoei: "Panelak jarriko ditugu, eta irudiak eta irudiak jarriko ditugu bertan". Eta halaxe egin nuen. *Hitz* aldizkarian argitaratu nituenak ere jarri nituen, lehenetakoak. *Akullu* sinatzen nuen garai hartan. Rotrina erabiltzen nuen, hau da, "akuilugrafikoa"! Akuilua idiari sartzen zaionez, nik, paperari!

Akullu-renak, zure lehen lanak.


Bai. Handik laster Donostiara etorri nintzen. Ordurako, *Berriak* aldizkaria ateratzen hasi ziren. Gero, beste aldizkari bat etorri zen, *Garaia*. Eugenio Ibarzabal zen han. Arte galeriak ere furri-furian zeuden, eta haietako batean, Donostian, Galeria B-n erakusketa egin nuen. Orain ere zaila zait gauzak hitzez adieraztea, baina are eta zailago orduan. Nire konstrukzioa barrutik zihoan. Marratzen hasi eta barra-barra ateratzen zitzaizkidan irudiak. Aldiz, esan esaldi bat osatzeko, eta ezin. Harritzekoa ere ez da ni garai hartan anarkista hutsa izatea. Ez nintzen alderdi politiko batekoa ere, eta *Berriak*-en, adibidez, batzarrak egiten zituztenean, eta niri nondik jo behar nuen galdetzen zidatenean, nik zera erantzuten nien: "Nik... marrazkiak ekarriko dizkizuet!". Marrazkiz betetzen nizekien kaxak. "Zuek hartu, komeni zaizuen eran. Nik, bitartean, gehiago egiten jardungo dut".

Aldizkarietan aldiro argitaratzen zenuen. Geroago, *Egin*-en, egunero.

"Zer? Mahaia jarriko dizugu?", galdetu zidaten, eta nik: "Ez, ez, konponduko naiz". Alegia, neure gisa ibiltzen nintzen, *freelance*. Lanera joaten nintzen, oso giro ona zegoen han hasieran, jendearekin hitz egiten nuen... "Zer marrazki egin behar duzu gaur?", galdetzen zidaten, ideiak partekatzen genituen, haiek esandakoak buruan ibiltzen nituen, laneko tokia eskaintzen zidaten... Gustura. Eta, beti, nire marrazkia egiten nuen.

Ordukoak dira zure barraskilo eta elefanteak.

Debako Arte Eskolatik datorren kontua da. Han denetarik zegoen. Batzuek harria landu nahi zuten, beste batzuek grabatua... Nik, haietatik ere dastatu nuen, baina nirea marraztea zen. Bazter batean jarri, papera hartu, eta marrazki bidez istorioak kontatzea. Marraztu eta marraztu egin nuen Deban, luma erabil-




tzen nuen, artean ez baitzegoen rottrik. Sutan zegoen nire burua. Deba hasiera izan zen. Gero etorri ziren Paris eta Iparraldea eta Donostia eta *Egin*.

Nola hasi zinen *Egin*-en?

Kasualitate hutsa. Mendian nenbilen batean, "Jon! Jon!" hoska baten bat. Mariano Ferrer, Donato Unanue eta beste batzuk ziren. Fagollagan, Hernanin. "Badakizu egunkaria egitera goazela?". "Zer edo zer aditu dut, bai". "Egingo al diguzu marrazki bat, egunkaria iragartzeko?". Egutegia egin nuen, famatu egin zen. 2017an berriz argitaratu zuten. Etxe bat egin nuen. Jendea, denak lanean, esne saltzailea astoarekin egunkariak banatzen, upelak erabiliz inprimatze lanerako... Harrezkero jakin dut Gutenbergekin ere upelak erabili zituela inprimatzean. Egun batean egin nuen marrazki hura, egutegiarena. Joan nintzaien, gustatu zitzaie, eta Mariano Ferrerrek: "Egingo al zenuke marrazki bat egunero?". Nik, baietz. Eta karakolak eta elefanteak etorri zitzaizkidan gogora. Eta martxan jarri nituen.

Haiek ere ondo famatu egin ziren!

Eta nire asmoa zen haien munduan ibiltzea, karakol eta elefante artean, baina ezin izan nuen. Mundu diferentek sortzeko beharra nuen, eta batean galaxia batean ibiltzen nintzen, bestean beste batean, gero karakol eta elefanteetara itzultzen nintzen... Nahaste-borraste ikaragarria. Kontentu bizi ginen, oso garai alaiak zen. Mundua ireki zitzaigun, aukeraz bete zegoen, ateak irekitzen ari ziren, aldizkarien legalizazioa etorri zen... Ni, esaterako, mundu ilegal batean ibili nintzen hilabete batzuetan,



"Hasiera hartan, inprimategiak klandestinoak ziren, zulo batean gordeak zeuden. Marrazkiak zuri-beltzean ateratzea beste erremediorik ez zegoen. Hala ere, beti ibili naiz kolorean margotzen".

aldizkari klandestinoetan, Iparraldean. Bidean, hainbat eta hainbat lan galdu ziren, baina ideia gorpuzten lagundu zuten galdutako lan haiek ere. Unibertsioa eginda zegoen. Erraza zen era bateko edo besteko marrazkiak egitea. Hari horretatik etorri ziren *Ipurbeltz*, *Irrimarra* eta gainerakoak. Lehendik datozen konstrukzioak dira. Eta seguru nago gauza asko txikitari ikusitako aldizkari, komiki eta filmetatik datozela. Baita inguruan ikusitakotik ere. *Akullu* sinatu nituen hasierako lan haiek, ni akuiluarekin ibilia bainintzen.

Baserrian?

Bai, bada! Osabak baten bat behar izaten zuen itulan egiteko, bai goldea, bai karramarroa, bai alferra ibiltzeko. Eta hantxe ni, idia mantso, eta ni haren aurrean. Beti gustatu zitzaidan lan hori. Akuilua, bestalde, ez zen gauza erasokorra. Gurea ez zen idi proba.

Hortxe bukatzen da zure lehen garaia.

Bai. Marrazkilariok geure burua komunikatzailetzat genuen garaia, beharbada. Artea zen hura, marrazkiak komunikatu egiten zuen. Batzuetan, egunkarietako zuzendariak zapuztu egiten ziren. Tira, jarri hor etendura puntuak, parentesi eta gainerakoak! Kar, kar... "Editoriala egiten ari zara!", esaten ziguten. Ni, neure bururako: "A! Editoriala egiten". Konturatu gabe, alegia. Zuzendariari protagonismoa kentzea esan nahi

zuen horrek. Laster, zu baztertzea etorriko zen, eta, gero, egunkaritik kanporatzea. Gainbehera bat bezala izan zen.

Egin-en eta Euskaldunon Egunkaria-n egunero publikatu zenuen.

Eta *Euskaldunon Egunkaria*-n egin nituen prentsako nire azken marrazkiak. Harrezkero, ez dut prentsan berriaz lan egin. *Ipurbeltz*-en segitu nuen, baina hor bukatu zen prentsako aldia. Gero, internet etorri zen, gure sukarra sarean jendearekin partekatzeak aukera, gauza zaharrak zein berriak erakusteko leihoa. Komunikatzeko tresna berriak ere saiatu nituen garai batean: zinema, musika... Hainbeste irudi ikusi eta hainbeste doinu aditu eta gero, etxetik bertatik saiatu nintzen lan esperimentalak egiten. Eta, horrek ere denbora betetzen dizu... Azken finean, horretarako gaude munduan, ezta?, denbora betetzeko, eta nork bere modura egiten du hori: batzuek errezatzen, beste batzuek diskurtsoak egiten, beste batzuek egurren ematen... denbora betetzeko lanean denok.

Zuk, marrazkiak egiten.

Sortzen. Nik sortzeko lanean betetzen dut mundu honetako denbora. Hala ere, lasaiago ari naiz orain. Burua ere sua eta kea botatzen hasten da halako batean, eta baretzea komeni izaten da... Sortzen, bizitzen ikasten, bizitzeko modurik onena bilatzen ari naiz. Jakina,

BARRASKILO, ELEFANTE

"Gurasoak Venezuelan izan ziren zenbait urtetan, eta bi anaia barnetegian izan ginen urtebetez. Han, film bat ikusten genuen astean behin. Eta filma ikusi eta ohera joaten ginenean, filma ibiltzen genuen buruan. Irudiak pilatzen zitzaizkigun, eta, bestalde, gure irudimenak are irudi gehiago sortzen zituen. Akordatzeko naiz, adibidez, Laurel eta Hardy, *Gizena eta Argala* saila. Hardy, gizena, handia, plazagizona, hitzontzia. Ondoan, Laurel, iharra, txikia, xaloa... Bata duzu elefantea, bestea barraskiloa. Bata da plaza, etxe barrua bestea. Uste dut hortik ere badutela nire marrazki haiek".

Azken hitza
HIZTUN HANDIAK, MARRAZKIA MUTU

"Oraintxe hasi naiz ni hizketan libere. Lehen ez nintzen kontalaria. Hala ere, solaskideak ere balio du zerbait ere, eta solaskide trebe askorik ez dago. Mundua duen pertsona bada, gustu ematen du. Gatza badu, zoragarri. Zenbait jenderekin hizketan aritzea, berriz, alferrik da. Ez dute ulertzen!".





DOAKO JARDUERAK

Apirilak 7

ESPERIMENTATZEN DUGU TAILERRA Kids Zone gunean.

Elektrizitate-estatikoaren eta zirkuitu elektrikoaren magia ezagutu, mikroskopioarekin laginak aztertu, eta haziekin esperimentatu ezazu.

Apirilaren 12tik 28ra

PAZKOA TAILERRAK Kids Zone gunean.

Aurpegia margotu, kometak egin, arrautzak apaindu, eta Pazkoa-ko untxiekin eskulanak egin.

Apirilak 13

TXIRRI, MIRRI ETA TXIRIBITON

Zuzeneko emanaldia 17:30etan txikientzako sorpresekin.

Apirilak 27


CALL OF DUTY TXAPELKETA "Itsu moduan jolasten" HYPE Station® gunean.

ETA GAINERA...

Ezagutu gure DESKONTU-DUN AISI PLAN GUZTIAK www.urbil.es/urbibox -en.



urbil.es



azkeneko ordura arte ez dugu jakiten zertara etorri garen, zer egin behar genuen, mundu hau zer den, eta nolakoa.

Marrazkiak egitea duzu bizitzeko modua. Sortu, eta egindako lanak erakustea.

Baina ez arte galerian, adibidez. Hori Amerikak egitea litzateke niretzat. Nire, urte askoan, tabernan erakustea izan zen. Baina garai hori ere atzean utzi nuen. Xoko Onan erakutsi nuenean, berriz, gauza ederra iruditzen zitzaidan jendeak bazkaldu edo kafea hartu bitartean nire marrazkiak ikustea eta komentatzea. "Arraioa! Zer da marrazki hori? Hi, ikusi al duk? Zer esan nahi ote din horrek?". Baliteke hemendik urte askotara, planeta honek irauten baldin badu, baten batek esatea: "Harrigarria! Gauza ederrak egiten zituen morroi hark!". Ordurako, ordea, marrazkiak ez dira paperaren gainean agertuko, birtualak izango dira, bideo-jolas modukoak, aldatu egingo dira momentutik momentura. Eta betaurreko bereziak jantziz gero, "Jon Zabaletaren unibertsoa" ikusiko du ikusleak, adibidez, baten batek nire pertsonaiak hartu eta mugimenduan jarri dituelako. 3D-n. Eta hantxe azalduko dira baserritarrak, upelak airean, soinu... Hori izango da geroa. Geroa, baina oso gertu dagoena.

Antton Olariagak behin eta berriz eta askotan esan duenez, kolorearen maisua da Jon Zabaleta. Hasieran, haatik, zuri-beltzean argitaratu ziren zure marrazkiak.

Ekonomia kontua zen, ez zegoen besterik. Plantxa bidezkoa zen inprimatzea. Eta plantxa bat ibili, edo lau ibili, asko garestitzen zen produktua. Bestalde, hasiera hartan, inprimategiak klandestinoak ziren, zulo batean gordeak zeuden. Marrazkiak zuri-beltzean ateratzea beste erremediorik ez zegoen. Hala ere, beti ibili naiz kolorean margotzen. Kutzak

eta kutxak dauzkat marrazkiak beteak, denak koloretan.

Ekonomia aipatu duzunez, "ekonomi-naz" ere asko dakiena zaitugu.

Horretaz jardun zuen Bernardo Atxagak, egin zidaten omenaldi batean [Dabilen Elea saria]. Pobrezia da 'ekonomina'. Nire kasuan, ekonomia ekonomina izan da beti. Desoreka. Urte batzuetan, plastika eskolak eman dizkiet ikastolako haurrei. Eta nire artean: "Gaixoa! Artista izan nahi du haur horrek!". Artistaren mundua beharrezkoa da, aldi berean da ametsezkoa eta terapeutikoa. Artea terapia da, sasi guztien gaintetik. Artista, berriz, egoera prekarioan bizi da beti. Esaten dute zenbait gizartek gehiago laguntzen dituela sortzaileak beste batzuek baino. Frantzian, diotenez, artista izena halako bulego batean eman orduko duzu bestelako lanen bat -dela eraikin bateko atezain, dela inoren laguntzaile non edo non-, sortzen segitzen lagunduko dizuna. Horrelakorik ez da Hegoaldean.

Makina bat marrazki dituzu argitaratuak aldizkari, liburu eta herri afixetan.

Arte funtzionala, esaten diote. Eskatzen didatenean, egin egiten dut. Ohore hutsa da. Bestalde, hortxe utzi dut nire denbora. Lana egin dut, zegokidan ordaina jasoko ote nuen jakin gabe, askotan. Hasieran, esate baterako, argitaletxeek beraientzat hartzen zituzten gure lan originalak. Besterik gabe! Halako batean, jakin genuen Kataluniako marrazkilariek egile eskubideak eskatzen zituztela. Eta, haien gerizan, horretan hasi ginen gu ere, eskubideak eskatzen, kontratuak sinatzen, originalak itzulian jasotzen... Hasieran, militantzia lana zen gurea. Baina batzuk besterik ez ginen militante. Beste batzuek inoiz ez zuten militatzen. Haiek beti goian, agintzen. "Bizi nahi dugu" esaten hasi ginenean, komeriak! Baina aurrera egin genuen. ●



Lubakiko antifaxismoa



DAVID BOU
LA DIRECTA-KO
KAZETARIA

Ekaitza gogor ari da, jakinaren gainean geunden, gezurra litzateke besterik esatea. 2011 urte aldean, Greziara bizitzera joateko zoria izan nuen. Demokraziaren sehaskatzat joa den lurraldean bizi zen tragediaren alderantziz proportzionala zen nire zorzea. Herrialdez aldatu nintzen eta Erasmus programaren Europako diru funtsari esker, formakuntza ikastaroak hartu nituen unibertsitatean, Troikak ezarritako zergen murrizketek itota zegoen estatu batean. Shockaren doktrina hain gordina eta latza zenez, sektore herrikoiaren "munstroa" berragertu zen. Egoera hartan ernatu zen elkarre popularraren esperantzazko izena: Urrezko Egunsentia.

Alderdi faxista horrek botoen %7a lortu zuen, Greziako Parlamentua sartu eta hemezortzi eserleku bete zituen. Harrezkero ez du hartutako lekua utzi. Bere estrategia, egunero telebistan eta zuzenean ikusten ari garenaren antzekoa da, tira, hobetua. Hau da, iritzi publikoaren zurrara eragiteko zentzugabeak diren uestezko burutapenak botatzen ditu. Hala ere, liskarra biziarazteko ekintza probokatzaileak antolatzen ditu, bere arerioak sumintzeko. Jendarteko talde sentikorrenak eta zaugarrienak erasotzen ditu, gehiengoaren aurka oldartu daitezten, haien kontura etekinak lortzeko.

Greziako egoerak jendearen interesa eragin zuen munduan eta etxera bueltatzean, esperientziari buruzko eztabaidetan eta hitzaldietan parte hartzeko auke-

Urrezko Egunsentia alderdi faxistak botoen %7a lortu zuen eta Greziako Parlamentuan sartu zen. Harrezkero ez du hartutako lekua utzi. Bere estrategia, egunero telebistan eta zuzenean ikusten ari garenaren antzekoa da, tira, hobetua

ra ugari izan nuen. Ekitaldi haien lemak ideia beraren inguruan hausnartuak izaten ziren: "Zer egin dezakegu muturreko eskuinari aurre egiteko?". Orduan ez nekien, eta gaur egun ez dut guztiz argi ere. Alabaina, solastoki bakoitzean ideia bera errepikatzen nuen: gure praxi politiko sozializatuko duten espazio kolektiboak sortu behar ditugu, sistema anker honen ondorio latzenak jasaten dituzten jendeak laguntzeko.

Antifaxismoaren aurkako kolektibo egokiena PAH (Hipotekak Kalteturikoen Plataforma) da. Elkarre hori Babilonia moduko bat da. Ia-ia dena galdu zuten pertsonak ahalduzko topagunea da, gizartearekiko lotura berreskuratu dutenen tokia, hurkoen arteko sostengua funtsezkoa dela ohartu direnen txokoa. Beren larru kolorea alde batera utzirik, galdu duten duintasuna berreskuratze-

ko bilgunea. Euren lorpenak dira horren bermea. Sabadell eta Manresan, immigrazioaren tasa-altuak dituzten hiriak -gorrotoaren diskurtsoa zabaltzeko eremu aproposak-, herritarrek hauxe ikusi dute: auzokideak elkarren aurka jartzea helburu zutenek intolerantziaren aurkako sare komunitario batekin egin dute topo.


Hala ere, testuingurua egokia da sua biziarazteko. Horren lekuko, Katalunian izan diren bi eraso arrazistak: gazteen harrerako zentroen aurkakoak; eraso gehienek magrebtarrak kolpatu dituzte. Aukera baten bila bide luze eta bakarria egin ondoren, arrazismo estrukturala eratu duen Mendebaldeko gizartean atzerritarrentzako legea bizi behar dute, eta hori gutxi bailitzan, gainera, Adin Gutxiko Ez Lagundutako Atzerritarrak izendatu ditugu (MENA). Haien estigma areago indartuz, haiek erasotzea errazten duena, subjektu homogeneoa eraiki baitugu haien bizkar.

Hartara, egun batzuen ostean, zarata mediatiko bete-betean, Espainiako banderaz betetako karpa berde bat instalatu zuten aipatu gertaerak izan ziren udalerrietako batean. Mossoek faxisten aurkako kontsignak aldarrikatzen zizutuztenen kontzentrazioko kideak babesten zizutuzten bitartean, xenofobiaren jomuga ziren gaztetxoak bakarrik-bakarrik gelditu ziren. Bistan da, haiek ez dute inoiz Europar Batasunaren beka bat izango lasai bizi ahal izateko. Beraz, izan gaitezten kontziente: gu gara izan dezaketenen bakarra. ●

Laru beilegi hori



BEA SALABERRI
IRAKASLEA



PAULA ESTÉVEZ

Txaleko Horien mugimendua, altxatu bezain laster, itzaltzera kondentzen zen. Hor dirau. Bazirudien ez zuela deus lortuko. Zerga soil baten kontra altxatzen zelako, agian? Ala ez zuelako sarien eta aberastasunen birbanaketa serioa planteatzen? Orain jada diskurtsoa jantziagoa da, anitzagoa, beste aldarri batzuei batua. Hala ere gutxiesten da, beste hainbat mugimendu alternatiboren gisan. Alta, usteak uste, iraultza anitzen abia molde bera dauka.

1979ko iraultza monarkiaren politika fiskal injustuak piztu zuen, jendetzaren gehiena sekulako zerga ordaintzera behartzen zela, nobleziak zergarik pagatzen ez zuelarik, orduko zor publikoaren ordaintzeko, burgesekiko zorra, monarkiaren mesedetan, jendetzaren beharra kontuan hartu gabe.

Urte berean Ligeiko iraultza gertatu zen garagardoaren zergarengatik eta arrazoi berengatik. Han ere noblezia eta burgesiak zituzten etekinak monopolizatzen, gizartearen kaltetan.

1905eko lehen iraultza errusiarra, zergen banaketa sumingarriarengatik agitu zen. Han ere zergen emendatzearen aitzakia zor publikoaren ordainketa zen. Langileriak aldarrikatu zuen zor horren ordainketa, sinpleki,

gelditu behar zela, honen absurdoa salatuz.

1989an Margaret Thatcherrek sortu zuen *poll-tax* famatuak populua altxatu zuen eta mobilizazioen ondorioz Thatcherren gainbehera gertatu zen.

Txaleko Horien mugimenduak nazka duela besterik ez du adierazten, okaztatua dela injustizia sozialaz, inposaketaz, miseriaz eta inkontzientzia ekologikoaz, bizi ezinaz. Bereztasuna du, lehen aipatu iraultzetan bezala, dinamika kolektiboa sortu dela, manifestaldietan ibiliz nahiz kexa kaierak betez. Txalekoen mugimenduan, sare sozialen bidez, sekulan harremanik ukan ez duen jendea kohesionatu da eta aste-buruz asteburu biribilguneetan elkartu. Anitzek aitortzen dute ez zirela sekulan manifestaldi batera joan. Non egon ziren beraz? Segurki etxean, bakoitza miseria propioa bizitzen ahal zuen bezala, agian gorde nahian, duintasunez. Eta horra bat-batean ohartu dela ez dela bakarrik, talde bateko kide dela, hainbat jenderekin amankomunean dituela hainbat sufrimendu.

Txaleko Horien, ZADisten, erretirodunen, nahi denaren gutxiestea, (nork bere) historiatic gutxi ikastea litzateke, esperientzietatik ondoriorik ez aterat-

zea, bizi erreala baino gustatzen zaigun moldekoa ikustea. Ekimenak onak egingen zaizkigu, txarrak, koherenteak, deliranteak, deusetarakoak, berdin dio, jada ezin baitira gelditu. Bakarrik izatetik kolektibo gisa proiektatzera heldu da jendea. Iraun bekio, honela edo beste molde batez.

Bizkitartean arraroa dena da mugimendu eta alternatiba politikorik ez dadin eraiki astez aste irauten ari den mobilizazio eta debate horietatik, proposamen konkretuen inguruan, programa baten inguruan federatzeko. Baina gizarte likidoaren funtzionatzeko moldeetan nola gauza daitezke holakoak? Antolatzeko duen nekezia horretan, Madrileko M15eko mugimenduari buruz pentsarazi dezake (hura ere *perroflauta* batzar gisa kalifikaturik izan zena asteen eta inertzien poderioz).

Eta hortik, *Sentinelle* dispositiboa zabaldu zen iragan larunbatean, afera likidatzeko, ahal bada. 1968ko gertakarietan Charles De Gaullek ez zuen armada protesta egileen kontra igorri. Hainbeste inporta ote du bankuak erre daitezen, urte oroz milaka pertsona zuzenean edo zeharka miseriarengatik hiltzen direlarik? Erregetxoaren hauteskunde kanpaina herritarrak ordaintzen ari dira. ●

Guk kalderero eguna, ijitoek PNVerro eguna



AHOZTAR ZELAIETA
KAZETARIA

Kalderero eguna zela eta, lagun ijito bati proposatu nion *PNVerro eguna* ospatu behar zutela. Euskal Herriko inauterietan Europa ekialdeko ijito pertza-konpontzaileak eta familiak irudikatze ohituren eta hartzarena egiten duen pertsonaiaren berri eman ondoren, bere harridura azaldu zidan. Herri batzuetan *Hungrino* bezala ezagutzen dira.

XV. mendean ongi etorriak izan ziren ijitoak, baina XVI. mendetik aurrera beraien aurkako jazarpen herritarra eta instituzionala hasi zen. Salbuespenak ematen dira ijitoek baldintza batzuk betetzen badituzte: euren nortasuna alde batera uztea, elkarrekiko probetxu nabaria bermatua izatea ijito eta euskal herritarren artean, erromintxelaz hitzegitea, errotuta izatea...

Ijitoak lagun eta auzokide izan ditut auzo ezberdinetan, Bilbo Zaharrean, Santutxuko Prim eta Ollerietako kaleetan eta Zorrotzan esaterako. Bilbo Zaharreko Herriko Tabernan ijitoen seme-alaba txironei merienda egiteko aukera ematen zitzairen. Elkartasuna zen irizpidea, ez benefizentzia edo paternalismoa. Nire aitarien anaia, Gregorio, trukean ibiltzen zen beraien Galdakaoko Bengoetxe auzoan.

Integrazio sozialaz ahoa betetzen dute askotan *vasquitoek* baina ezberdinen arteko elkarrekintzak guztiz es-

tereotipatuta eta topikoz beteta daude. Kasurako, Gure Esku Dagok antolatutako ekitaldi batean, non eta San Mames futbol zelaian, ijito batzuek *Hegoak eba-ki banizkio* abestu zuten. Musika folklorikoarekin abestu zuten. Abertzaleentzat imajina ezina zen ijitoen rap talde bati gonbita luzatzea. Ijitoak ez dira guk nahi duguna, edo guri komeni zaiguna. Direna direlako dira ijito. Musulmanekin eta beltzekin gauza bera gertatzen da, kuskusa prestatzera gonbidatzen ditugu edo oinutsik dantzatzera, beraien aniztasuna eta elkarren arteko ezberdintasunak alde batera uzten ditugula.

Gränser Utan, en film om idrott ocj integration, 2005. urtean argitaratutako dokumentalean, Osama Krayem agertzen da. Suediako integrazio sozialaren arrakastari buruzko lan bat da. Osamak 2016. urtean Bruselako atentatuaren parte hartu zuen. 1994. urtean, Joseph Skipper izeneko gazte beltzak, Rosa Parks famatuaren etxean sartu eta emakumea jipoitu ondoren, 53 dolar lapurtu zizkion.

Astronauta izan nahi nuke askotan, Maisha MCK bezala. 121 Krew taldean aritu zen rapero eta NASAko langile honek, Eneko Apeke hain zuzen, hauxe aipatzen du "Ez egin kasurik" abestian: "Baina behin askatasuna lortuta, ikurri-na, entzun, Enekok erreko du". ●

Halabeharraren ezustekoak



BEÑAT SARASOLA
IDAZLEA

Tommy Caldwell eskalatzailea, etikako eskoletan planteatzen zitzaizkigun dilema horietako baten aurrean jarri zuen behin patuak. Kirgizistanera joan zen 2000. urteko abuztuan, beste hiru lagunekin, urruti hartako mendietan eskalatzera. Han zirela, herrialdeko gobernuaren kontrako matxino batzuek bahitu zituzten, eta gertu ikusi zuten beren bizien akabera. Eskalatzaille eskarmentua baliatu zuen Caldwellek bahitzaileetako bat labarretik behe- ra bota eta lagunekin eskapo egiteko.

Utilitaristak berehala onetsiko du Caldwellen ekintza, lau bizik bakarrak baino gehiago balio duela argudiatuta;

kantiarrak, ordea, inperatibo kategorikoa gogoraziko du, gizakia ezin dela bitarteko gisa erabili. Haatik, nire irudiko, historia honetan interesgarriena hauxe da: errealitateak zaila izaten duela eredu teorikoetara egokitzen. Izan ere, Caldwelli zalantza geratu zitzaion, ea bahitzailea hil gabe ere bizirik jarraitzeko moldatuko ziratekeen; horregatik ibili zen denbora luzez kulpak jana. Halabeharrak, baina, bazuen beretzat ere gozorik: urte batzuk geroago, bahitzailea trantze hartatik bizirik atera zela jakin zuen. Printzipio moralak baino aringarriagoak izaten baitira halabeharraren ezustekoak. ●

Trinitate santua-k ez du misteriorik



FERMIN ERBITI
KAZETARIA

Javier Esparzak nafar eskuindarrak zerrenda bakarrean bildu izana apustu ausarta eta argia iruditzen zait. *Hirurak bat*-en alde egin du, jokaldia borobilduko lukeen azken mugimendua amets, alegia, Vox-ek zerrendarik ez aurkeztea. UPNkoak batasunaren berri eman zuenetik, kritika anitz jaso ditu. Nondik? Aurkari politikoengandik, abertzaleengandik batez ere. Eskuindarren zat apustu ona den seinale.

Bada zerrenda bakarraren ondorioz UPNn arrakala iragarri duenik, foruen aurka dagoen Ciudadanosekin tratua egiteagatik. Begi-bistakoa da: hark ez du (nafar) eskuina ezagutzen. Eskuindarrak oso pragmatikoak izanik, ez dira ñabarduretan galtzen. Dena huskeria bihur daiteke, baita foruen aurkako erasoak ere, helburua ona bada: abertzaleak Diputazioaren jauregitik bidali eta betikoak itzul daitezela. Horretarako badakite botorik ez galtzea ezinbestekoa dela. *Trinitate santua*-k ez du beste misteriorik.

Laukoak zein UPNk oso gogoan daukate duela lau urtekoa: Ciudadanos %3ko marrik behera gelditzea eraba-

Geroa Baik, EH Bilduk eta Ezkerrak eutsiko diotela ematen du. Arazoa da mahaiko beste hanka errenka dabilela, gainbehera orokorrarengatik eta Nafarroan Perezek-eta eskaini diguten ikuskizun lotsagarriarengatik. Ahal dugu Ezin dugu bihurtu da

kigarria izan zen Uxue Barkosen gobernu osatzeko. Berrehun bat botori esker heldu zen aldaketa. Biak ala biak beste zerbaitetan ere ados daude: lau urteko parentesia gozagarri izan daiteke batzuentzat, mingarri besteentzat. Edonola ere, laburregia da benetako aldaketa egiteko. Kontua da boteretik kanpoko bi-

garren legegintzaldia oso kolpe gogorra litzatekeela erregionalistentzat. Estrategia aldatuko luketen ez dakit. Liderra, dudarik gabe.

Argi esan dezagun: 2019ko maiatzean nekez errepikatuko da duela lau urteko gehiengoa. Geroa Baik, EH Bilduk eta Ezkerrak eutsiko diotela ematen du. Barkosen koalizioak gora ere egin dezake, zentraltasunean kokatuz, abertzale ez direnen botoak ere erakarriz. Arazoa da mahaiko beste hanka errenka dabilela, gainbehera orokorrarengatik eta Nafarroan Laura Perezek-eta eskaini diguten ikuskizun lotsagarriarengatik. Duela lau urteko Ahal dugu, Ezin dugu bihurtu da.

Podemosen jaitsierak eta Madriletik datorren aldeko haizeak sozialistak putzutik atera ditzakete. Putzutik, agian, gobernuaren giltza izatera, nahiz eta laugarren postuan gelditu. Eta orduan, zer? Eskuindarren makulu, berriro ere? Geroa Bai eta Podemosekin (EH Bilduren baimenarekin) Gobernu osatu, agian? Lehendakaritza lortzen saiatu, besteei botoa eskatuz? Beti bezala, nafar sozialisten egoitza nagusian hartuko da erabakia: Madrilgo Ferraz karrikan. ●



ATXEGA JAUREGIA

jatetxea

ATXEGA
JAUREGIA



Aitzezarra, 1

Zumartegi industrialdea

© 943 37 11 50

21070 **Usurbil** (Gipuzkoa)

www.atxegajauregia.com



AEK, TOPAGUNEA ETA KONTSEILUA

HIRU BEGIRADA ETORKIZUNARI

Dozenaka mila herritar, Euskaraldiaren olatuan, hizkuntza ohiturak astintzeko ariketa egitetik gatoz, eta beste milaka euskaldun eta euskaltzale kalera ateratzen dituen Korrika bete-betean gaude. Bien helburua euskaldunak aktibatzea, hizkuntzaren erabilera lehen lerrora ekartzea. Euskalgintzako hiru eragile handirengana jo dugu "aro berria" deitu izan zaion garaiotan urratsak nondik eman behar diren aztertzeko asmoz.

TESTUA | ONINTZA IRURETA AZKUNE
ARGAZKIAK | DANI BLANCO



"Erronkak ez dira euskalgintzako eragileontzat bakarrik"

MERTXE MUJICA
AEK-KO KOORDINATZAILEA

1 Hasteko, nik neuk ez nuke hainbeste azpimarratuko apalaldia; esango nuke euskalgintzak lanean jarraitu duela, baina nor bere esparruan, eta, sarritan, egindako lan horiek ez direla ikusi edota baloratu euskaldunon zirkuluetatik harago. Esaterako, euskaltegietan ikasle-kopuruaren beherakadari aurre egin diogu, bi urtean behin Korrika arrakastatsuak antolatu ditugu... Hori esanda, egia da garai berri baten aurrean egon gaitezkeela, eta hori esateko zantzuen artean hauexek nabarmenduko nituzke: administrazioen eta euskalgintzako eragileen artean elkarlanerako zabaldu den bidea –Euskaraldia edota hedabideen arloan sinatutako hitzarmena, esaterako–, eta Korrikara eragile berri askotxo hurbildu izana, konpromisoak hartzeko gogotsu.

2 Argi daukat betikoak ez duela balio. Horrez gain, uste dut erronkak ez direla euskalgintzako eragileontzat bakarrik, euskararen normalizazioa ez dagoelako bakar-bakarrik gure lanaren baitan. Halere, euskalgintzako eragileon erronkak arlo hauetan daudela uste dut:

- Ezagutzaren unibertsalizazioa: Nahitaez sakonago jorratu beharreko gaia da. Euskal Herriko biztanleen erdiak oraindik ez daki euskaraz. Egoera hori irauli ezean, nekez izango da jauzi itzela erabileran.

- Lan munduaren euskalduntzea: Aukera paregabea dugu lan munduan eragiteko! Administrazioan, esaterako, datorren hamarkadan jubilazio andana aurreikusten da. Orduan sartuko diren langileek bermatuta izango dute euska-

GALDERAK

1

Esaten da, euskalgintza, apalaldiaren ondoren garai berri baten atarian dagoela. Zein dira garai berri horren adierazleak?

2

Zein dira euskalgintzako eragileen erronkak hemendik aurrera?

3

Zein dira korapiloak?

4

Euskaraldiaren ondorengoan gaude. Zertarako balio izan du eta zertarako ez?

5

Gizarte eragileen eta erakunde publikoen arteko harremanak hobeak diren garai honetan, euskararen normalizazio bidean ez al dago epelago aritzeko arriskurik?

raren ezagutza, neurri batean, bederen. Lanean hasteko harrera-prozeduretan euskaraz lan egiteko bideak ziurtatu- ta egon behar du, ezinbestean. Horrez gain, enpresa askotan zuzendaritza-aldaketak izango dira, eta haietan behar- rean hasiko diren pertsonak ere euskararekiko atxikimendua izango dute. Ezbairik gabe, mimoz eta arretaz zaindu beharreko arloa dugu.

- Hizkuntza-politika integrala eta publikoa garatzea: Arlo guztiak eta Euskal Herri osoa aintzat hartuko dituen plan- gintza behar dugu.

- Etorkinen uholdeari ere berandu baino lehen heldu beharko diogu: Eto- rriko diren horiek euskaraz bizi den he- rri batera etorri direla ikusi behar dute. Euskarak herritarren integrazioarako tresna izan behar du. Euskal Herrian, berton jaio ez diren belaunaldi asko ezagutu ditugu, eta ezagutuko ditugu; askok, gainera, ez dute izan euskara- ren berri, edo hortik kanpo geratu dira. Euskara duen herri batean bizi direla jakin behar dute, eta bereziki, uste dut euskarak asko laguntzen ahal duela gi- zartea bera kohesionatzen.

3 Diagnostikoak partekatuta daude, esango nuke horretan asko sakondu du- gula. Orain, neurriak jarri behar dira, eta hain zuzen eginkizun horretan, maiz, trabatu egiten gara. Hortxe ikusten dut korapilo bat, denboraz askatuko dena.

4 Balio izan du hizkuntza-ohituren ginean hausnartzeko; nik balio han- dia ematen diot horri. Balio izan du el- karlana areagotzeko, hainbat lekutan, behintzat. Zertarako ez duen balio izan? Bada, euskararen geroa ziurtatzeko bi- dea izan dadin; horretarako, Euskaral- diarekin batera, beste gauza asko egin behar dira.

5 Egon daiteke, bai, baina arriskua eki- ditea gure esku dago. Hori lortzeko ga- koa da bakoitzaren lana aitortzea eta zintzo jokatzeko, eta kritikak egin behar direnean, egitea, norbere lana hobetze- ko moduz hartuta. Ondo egindako la- nak aitortu behar direlakoan nago. Nik, arriskuak baino, aukerak ikusten ditut; alabaina, horretarako, lan-moldeak ere aldatu beharko dira, gobernantza par- tekatuak izan behar dira, elkarrekin lan egiteko guneak sortu, elkarrekin landu- tako plangintzak abiatu... Lehen esan bezala, bakoitzaren lanaren aitortpena beharrezkoa da.





JUNE PRIETO / FOKU



"Inoizko oinarri eta baldintzarik onenak ditugu jauzi berriak emateko"

JASONE MENDIZABAL
TOPAGUNEN ZUZENDARIA

- 1 Noraezaren sentazioa izan dugu euskalgintzako eragile askok, horrenbeste lan egin ondoren geneuzkan helburuak lortzetik urrun ikusi baititugu euskararen inguruko adierazleak. Biribil honetatik ateratzeko gogotsu eta prest gaudela esango nuke eta ikusten ditudan sintomen artean honakoak aipatuko nituzke: euskalgintzaren baitako konfiantza giro berri eta indartua, herritar euskaltzaleen aktibazio freskatua, diskurtso berrien azalera, instituzioekin lankidetzaren sendotua eta elkarrekin desafio berriei heltzeko gogoia. Inoizko oinarri eta baldintzarik onenak ditugu jauzi berriak emateko.
- 2 Lehenetsuneko bi erronka nagusi aipatuko nituzke: lehena premiarekin lotuta, lan mundua, eta bigarrena gozamenarekin lotuta, aisialdi eta kultur gintzako esparru askea. Patxi Saezek 2015ean aurkeztu zigun "elefante"tik hona ezer gutxi mugitu da. Odolustearen adierazle nagusia aipatzekotan, esango nuke milaka eta milaka gaztek haurtzarotik euskara ikasteko egindako ahalegina, alferrik galtzen dela lan mundura heltzerakoan, nagusiki erdaraz jarduten baita. Eskolaren bidez haurrak euskalduntzeko hamarkadako inbertsio publikoari etekina ateratzeko ardurak daukagu eta gaztetxoengan euskara erabiltzeko motibazio iturri funtsezkoa izan daiteke gainera. Baina beharra beharra da, eta gazteok lan mundura heldu orduko eskolaz kanpo dute benetako bizitza gozagarria, eta garai hau gero eta luzeagoa da. Hortaz, aisialdi eta kultur gintzaren eremu gozagarri eta sortzailea aipatuko nuke lan munduarekin batera. Estrategikoak izan daitezkeen gai potolo gehiago badaude aurrekoek gain: euskararen ulermenaren unibertsalizazioa, euskaltzaleen aktibazioa, euskarazko komunikazio sistema integral baten bultzada, etorri berrientzat eta hizkuntza aniztasunaren kudeaketarako plangintza orokor bat... Euskalgintzaren etapa berrian ezin dugu bertan goxo gelditu.
- 3 Aldaketa sakonak eskatzen ditu egoera berriak eta oro har pertsonok eta zer esanik ez eragile eta instituzioek aldaketari erresistentzia jartzen diote. Akordio soziopolitiko berriak behar ditugu eta horretan guztian askoren arteko adostasunak eraiki bide berean bultzatzea egiteko.
- 4 Balio izan du ilusioa pizteko, euskaraz bizitzeko herritarren gogoia eta lana ikusarazteko, lankidetzaren berriak sartzeko, Euskal Herriko lurralde guztietan batera aritzea, hizkuntza praktikak berriak esperimentatzeko, arau berriak gizarteratzeko... Ez du balio izan euskararen erabileran jauzi handi bat emateko, edizio asko beharko ditugu horretarako. Ez du balio izan sortutako lankidetzaren sare berriak blindatzeko, lankidetzaren batzuk hauskorregiak baitira oraindik.
- 5 Arriskua beti dago baina aitzakia horrekin urratsik ez ematea al da bidea? Harremanak txarrak badira, txarrak direlako eta hobeak badira arriskuak daudelako. Erne egon behar dugu eta arrisku hori eta beste hainbat aurreikusitako eta kudeatu beharko ditugu, baina baldintza hobeak baditugu gure ardurak da euskararen mesedetan aukera horiek baliatzea.





"Normalizazio-prozesuaren hanka politikoa sendotzea da erronkarik nagusia"

PAUL BILBAO

KONTSEILUKO IDAZKARI NAGUSIA

1 Egia esan, ez dut gustuko apalaldia kontzeptua, benetan uste baitut Euskalgintza lanean aritu dela azken urteotan. Akaso, egin/eragin binomio horretan egiteari jarri zaio arreta handiagoa eragiteari baino.

Bestalde, egia da gizarteko beste sektore batzuetatik, feminismitik esaterako, lan-molde berriak erakusten ari zaizkigula, are gehiago, zehar-lerro diren gaiak ertzetatik zentrorra ekartzeko estrategia eragingarriak ari gara ikusten. Kontua da horiek nola aplikatu euskararen normalizazio-prozesuan.

2 Gure ustez normalizazio-prozesuaren hanka politikoa sendotzea da erronkarik nagusia. Horretarako, adostasun soziopolitiko berriak eraiki behar direla iruditzen zaigu. Ziklo berri bati hasiera eman behar bazaio, hizkuntza-politikari lotutako adostasun soziopolitiko berri eta berriak behar dira.

3 Tamalez, euskara eta hizkuntza-eskubideak ez daude kokatuta agenda politikoaren erdigunean. Euskararen normalizazioaren beharraren zirimiria ez du behar bezala gizarte osoa busti. Egia da, bai, batzuetan euri-jasak izaten direla eta

Korrika da horietako bat. Halere, afera da euskararen normalizazioaren tentsioa urte osoan mantendu behar dela.

4 Modu orokorrean, batetik, Euskaraldiak balio izan du euskararen normalizazio-prozesuaren hanka soziala indartzeko edo giharra erakusteko. Bestetik, Euskaraldiaren bidez erakutsi da euskararen gaia guztion afera dela eta guztiok badugula zer egina. Hirugarrenik, lanerako harreman-eredu berriak sortzeko balio izan du. Eta, uste dut azterketen emaitzek hizkuntza-ohiturak aldatzeko baliogarria izan dela erakutsiko dutela.

Bere buruari jarritako helburuak bete dituela iruditzen zait. Kontua da Euskaraldiari ezin eska diezazkiokegula horrelako dinamika bati ez dagozkion helburuak. Horrexegatik esan dut dinamika berri bat behar dugula hizkuntza-ren normalizazio-prozesuaren alde politikoa indartzeko. Hizkuntza-eskubideak bermatzeko prozesu politikoa zehaztuko duten adostasunak eraiki behar ditugu berandu baino lehen. Horri lotuta, Kontseiluak beste behin jarri nahi du mahai gainean inoizko adostasun sozialik handiena lortu duen proposamen

politikoa, Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloa. Asmoa dugu, oinarri hori hartuta, hurrengo hilabeteotan adostasun horiek jorratzen hasteko.

5 Printzipioz kontrakoa beharko luke. Hau da, berez, gizarte eragileen eta erakunde publikoen arteko harremanek hobera egiteak normalizazio-prozesuaren azkartzea ekarri beharko lukete. Eragileek eta instituzioen arteko konplizitateko harremanek itsasontziari abiadura handiagoa hartzera lagunduko liokete.

Horretarako, harreman-eredu berriak aztertu behar ditugu hizkuntza-politikari dagokionez. Gobernantza da azken boladan bolo-bolo dabilen hitza, eta zinez uste dut hizkuntza-politikatik hizkuntza-gobernantzarako jauzia egin behar dugula. Argi dago, instituzioek eta eragileek funtzio desberdinak betetzen dituztela hizkuntza baten normalizazio-prozesuan, baina ezin dira bi zutabe independente gisa agertu. Lan egiteko modu eta formula berriak aurkitzen hasi behar dugu hizkuntza-politikan eragileek iritziak pisu handiagoa izateko. Uste dut euskalgintzak erantzukizunez jokatu duela horrela aukerak sortzen hasten badira. ●



“ ERALDAKETA SOZIALAREN
BORROKA ETA INDEPENDENTZIA
ERABAT LOTUTA DOAZ EGUN ”

JESÚS RODRIGUEZ SELLES, *LA DIRECTA*-KO KAZETARIA

Jesús Rodríguez Selles pertsona ezaguna da Kataluniako kazetaritzan. 1996. urtetik ari da informazioaren munduan lanean eta militatzen, beti ere prentsa konprometitu eta tokikoaren lubakitik. Hamabost urte dira *La Directa* komunikabidearen oinarriak jartzen hasi zela hainbat kiderekin batera. Apirilaren 5ean Gasteizen izango da, ARGIAk eta Hala Bedi irratiak elkarlanean antolatutako hitzaldian hizlari. Elkarrizketa hau ere bi hedabideotan aurkituko duzu, Hala Bedin irrati-elkarrizketa originala gaztelaniaz, hemen idatzirik euskaraz.

TESTUA | Z. OLEAGA

ARGAZKIA | VICTOR SERRI / LA DIRECTA

Asteotan Kataluniako prozesu independentistaren zenbait arduradun sozial eta politiko ari dira epaitzen. Zer erreakzio ari da sortzen jendar-tean?

Estuki ari zaio jarraipena egiten. Oso ohikoa da jendea ikustea belarrian aurikularra jarrita eta epaiketa zuzenean jarraitzen, egunerokotasuneko zereginak egiten dituen bitartean. Hurbiltasunez, arduraz, baita frustrazio puntu batekin ere. Eta emaitzaren esperoan, bai pre-soengatik bai, sozialki eta politikoki izan dezakeen ondorioengatik.

Kontakizunaren bataila irabazten ari zareten sentsazioa daukazue?

Beti gogoratzen ditut Marta Roviraren hitzak erbestera joan aurretik: "Ezin dut jasan nire herrian eta nire hitzen artean espexteratua sentitzea". Ez zegoen fisikoki preso, baina ezin zuen adierazi nahi zuena mehatxatua sentitzen zelako. Hori da ikusten ari garena. Eskubide zibil eta politikoak bertan behera utzita dauden egoeran gaude, esaten den guztia marko horren barnean ulertu behar da.

Errepresio estentsibo eta intentsiboa ari zarete jasaten, azken hamarkadetan Katalunian ezagutu gabea.

Euskal Herrirako propio egin zen "dena da ETA" edukiontzian guztia sartzen zen; Kataluniarako eraiki diguten honetan, edozer izan daiteke matxinada edota sedizioa. Aginte judizialak interpretatzen badu posizio batek estatu egiturak irauli nahi dituela, edo marko autonomikoa eraldatu, sedizioa edo matxinada leporatzeko motiboa izan daiteke. Egitura mental hori pixkana sendotuz doa, nahiz eta erresistentzia ere oso presente dagoen. Batzuetan isla publikoagoa du, bestetan klandestinoagoa da, edo auzo edo herri mailan gertatzen da komunikabidetatik kanpora.

Urriko gertaerak posible egin zituen aldagaietako bat eragile politiko eta sozial nagusien arteko batasuna izan zen. Egun apurtua dirudi.

Independentismoaren sektore baten analisia da ez dagoela indar nahikorik pauso bat eman eta Estatuari aurrez aurre begiratzeko. Estatu mailan aliantzak egiteko garaia litzateke, Podemosekin eta

PSOEn sektore batzuekin, urrats berri baterako energiak garatzen diren bitartean. Azken hilabeteetan bereziki ERCren ikuspegia izan da hori. Epaiketak aurrera egin ahala sententzia gogor baten aukera indartzen doa, eta posizio horrek bere zentzua galtzen du. Estatu mailako hauteskundeek emaitzek pisu handia izango dute. Eragiteko gaitasunik izango al dute Kataluniako indar politikoei? Eskuinaren eta eskuin muturraren alderdiek gobernua osatu ahal izango dute? PSOE Ciudadanosen bozken menpe geratuko da? 155 berri baten aukera hor dago, eta uste orokortua da hori heltzekotan aurrekoa baino sakonagoa izango litzatekeela, eta denboran luzeagoa. Kataluniako jendarteak onartuko luke hori? Agertoki horren kudeaketan eta bideragarritasunean ziurgabetasun asko ikusten ditut.

Batasuna herritarren jarrerak ekarri zuen maila handi batean, behetik gorako prozesua izan zen. Bada gihar sozialik?

Bada indarra. Azken urteko deialdiek ehunka milaka pertsona batu dituzte. Horrek adierazten du mobilizazioa bizirik dela, indartsu dagoela. Ez du kentzen, aldi berean, nekea, desorientazioa eta frustrazioa ere pilatzen doazela. Ez gaude 2017ko udazkeneko egoeran, non denak ematen zuen posible, dena lorgarri mobilizazio eta ekimen politikoen bitartez, Estatuaren errepresioaren gainetik. Posible irudikatzen zena, orain askoz konplexuago ikusten da. Errepresioaren ondo-

rioak gure azalean sentitu ditugu, ikasi dugu ez dela doan, ondorioak daudela.

Begira dezagun ezkerrean. Euren burua independentistatzat ez zuten pertsona eta mugimendu askok erreferendumaren eta prozesu independentistaren alde egin zuten. Bestelako potentzialtasun eraldatzaile batzuk aitortzen zizkieten. Zer posizio daude egun?

Mantendu ez ezik, zabaltzen ari dela iruditzen zait. Podemos eta Comunen espazioa sakabanatzen eta zatikatzen ari da, mundu horretako zenbait sektore espazio independentistara batzen ari direlako. Konbikzio demokratiko hutsagatik: errepresioa egonkortu ahala, erabakitze





JORDI PAGÈS-JOANA TRIVINO



IRANTZU PASTOR

eskubidea eta adostutako erreferenduma zenbat eta gehiago ukatu, orduan eta posizio ahulagoa du Comunen espazioak. Argudio sendoen eta posizio argien faltan, mundu horretako gero eta jende gehiago mugitzen da CUP edo ERCren espazioetara. Horrela adierazten dute inkestek. Independentismoaren aldeko jarrerak gora doaz jendartean, pixkana bada ere.

Ezker independentistak ahalegin handia egin zuen prozesua eraldaketa sozial orokorragoari lotzeko, herri burujabetza politikoa beste burujabetzekin lotzeko: ekonomikoa, pertsonala, ekologikoa...

Hori martxan dago, guztiz. Eredu ekonomiko neoliberal hegemonikoa Espainiako Estatuarekin eta errepresioarekin

lotzen ari da Kataluniako biztanleriaren sektore bat. Munduaren kosmopolitismoa nekez sinetsiko genukeen eraldaketa egin dute askok. Hain garrantzizkoa, ezen, Urriaren 1eko mandatu politikoa Errepublikan egikaritu ezinaren frustrazioari erantzuna, eguneroko borrokara eraman dute: Endesa utzi eta Som Energian izena eman; Caixa edo BBVatik dirua atera eta banka etikoan jarriz... Egunerokotasuneko eraldaketa txiki horiek gero eta ikusgarritasun handiagoa dute. Eraldaketa sozialaren borroka independentiarekin eta marko politikoarekin erabat lotuta doaz egun.

“independentismoaren aldeko jarrerak gora doaz jendartean”

Eskuin independentistara zuzenduko dugu orain begirada.

Tesi bat defendatzen dut nik: eskuineko independentismoaren mundua da prozesu honetan eraldaketarik sakonena bizi izan duena; zatiketa, berregituraketa eta berri-tze ideologiko gehien izan dituena da. Prozesuak independentzian eta eraldaketa sozialean sakondu ahala, eskuin klasiko

burgese horretako kide batzuk espazio horren zuzendaritza politikotik desgertzen joan dira: Duran i Lleida, Felip Puig... Alderdi Sozialistara, Ciudadanosa edo PPra hurbiltzen joan diren Convergenciako pertsonak dira. Hori oso kontuan izan beharrekoa da, batzuetan



orain hamar urtetako errealitateetan oinarritzen baititugu analisiak. Espazio politiko horrek erabateko konbultsioa bizi izan du.

Dena den, barne mailan sentsibilitate ezberdinak egoten jarraitzen dute. Bruselan eta erbestean daudenekin ekinbide politikoak eragin gehiago du Katalunian egunez egun. Hauteskundeen zerrandekin ikusi da Puigdemont eta Torraren sektoreak PDeCAT-en goi eta erdi mailako ardura-dunei hartu diela gaina. Horrek esan nahi du PDeCAT edo Cridaren espazioa ezker-tiarragoa bilakatu dela? Ez naiz ausartzen horrelakorik esatera, baina uste dut errepresioak jarrera desobeditzaileak area-gotu dituela, eta itunzaleak gutxiagotu. Estatuarekin zeuden zubi ekonomiko eta politiko asko apurtu dira.

Egoera hain konplikatuan ez da baxterre erraza begirada motza eta luzea uztartzea.

Egunerokoan harrapatuta bezala gaude: epaiketak, hauteskundeak, errepresioa. Horrek epe luzera begiratzea zailtzen die aktore batzuei, baina euren jarrerarekin koherentea da, ez diotelako uko egin nahi erreferendumaren une fundatzaileari. Marko horri uko egitea arriskutsua da. Status quo ekonomiko eta sozialean aldaketa eta birplanteamendu handirik nahi ez duten sektore posibilitatagoak indartzea izan daiteke hori. Epe luzearen tesia defendatzearen atzean ezer ez aldatu nahia ere egon daiteke, hori dago PdeCAT-en sektore batzuetan. Nik uste atzera bueltatzea ekarriko lukeen frustrazioa egungo errepresio markoak sortzen duena baina handiagoa litzatekeela.

Urte asko daramatzazu kazetaritzan. Nola eraldatu da Kataluniako mapa komunikatiboa?

Komunikazioaren kontsumo moduetan aldaketa orokorra da: prentsa idatzitik digitalera. Minutuz minutu aktualitatea mugikorretik jarraitzen duen pertsona kopurua handia da. Horrek erronka berriak ezartzen dizkio kazetaritzari: ia berehalakoa den informazio horrek kalitatea duen eta eraldatzailea den edo ez; hausnarketa laguntzen duen edo ez; eduki landu eta pausatuen beharra ote dugun, kalitate hobegoko irakurketa uneak eskainiz. Paperezko informazioa fetitxea bihurtu da, "irakurtzen jarriko naiz" uneetara mugatua. Baina paperezko irakurketak inpaktu eta eraldaketa gehiago du irakurlearengan.

Garai onak dira proiektu komunikatibo alternatiboentzat?

Hori ikusten dugu gure proiektuan zein beste batzuen eboluzioan. Nola doazen gora harpidetzak, nola ari den aldatzen kultura komunikatiboa: ulertuaz norberak ez badu ordaintzen informazioagatik beste batzuek ordainduko dutela, eta diru asko dutenek informazioa beren interesen aldekoa izatea bultzatuko dutela. Horregatik ari da zabaltzen irakurleen komunitatea, proiektua harpidetza bidez mantentzen duena.

Hala Bediko eta ARGIAko kazetari bana informatzeagatik salatuak izan dira. Ez dira kasu isolatuak. Zer osasun du informatzeko askatasunak

Herrialde Katalanetan?

Orain gutxi aurkeztu dituzte prentsaurrekoan Grup de Periodistes Ramon Barnils eta giza eskubideen aldeko Iridia zentroak osaturiko txostenak. Adierazpen eta informazio askatasunen aurkako erasoen bilakaera aztertu dute. Bi urteotan izandako hamarnaka erasoek agerian uzten dute informaziorako eta komunikaziorako une konplexuan gaudela. Gai eta gertaera batzuen inguruan informatzerik nahi ez duten pertsonak daude, eta presioa gero eta handiago da. Batzuetan komunikabide barruan gertatzen da, zuzendaritzek kazetariari zuzendua. Bestetan komunikabideen aurka zuzenean, polizia, epaile edo talde jakinen eskutik. Prentsaurreko hartan kazetari baten kasua azaldu zuten. Lau urteko espetxealdia eskatzen diote, erai-kin baten hustuketaren berri ematen ari zela ustez istiluen aurkako polizia bat lesionatzeagatik. Orokortzen ari den praktika polizial baten adibidea da. Akreditatua joatea erasotzeko motibo da zenbait poliziarentzako. Jaka eta besokoa daramaten kazetariak dira askotan, hain zuzen ere besokoa kazetarien elkarre profesionalen eta Espainiako Barne Sailaren artean adostutako akreditazioa denean. Ez da sistemaren errore bat: botere ugariaren artean koordinatutako ekinbidea da, gertaerak dokumentatzen dituztenak isilaraztea dute xede.

Bada erantzunik sektoretik?

Erantzun oso sendo eta antolatua dago dago kazetari eta fotokazetariaren artean, salbuespenak salbuespen. Oso zabalduta daude lanbidearen defentsa eta neurri horiek ez onartzea. Kazetari batek eraso pairatzen duen bakoitzean elkartasun handia aktibatzen da, bai kazetaritza mundutik, bai jendartetik oro har. Babes oso kontzientea da.

Zergatik dira beharrezkoak Hala Bedi, ARGIA edo La Directa moduko proiektu komunikatibo herritar eta alternatiboak?

Beharrezkoak dira ez direlako alternatiboak. Kazetaritzaren historiaren une honetan, alternatibo izendatu ohi ditugun komunikabideak dira profesioaren jatorrizko baloreen arabera jarduten dutenak: kontrastatzea, zorrotasuna... Ez diot denak egiten dutenik, baina bai askok. Ordea, ibilbide luzea duten komunikabide batzuek, kazetaritzari erantzuten omen diotenak, ez dute ofizioaren kode etiko eta deontologikoa errespetatzen. ●

GURS, 80 URTE

PIRINIOEN MAGALEAN GATIBU

“Armada Gorria gatibu eta desarmatua, azken helburu militarrek lorturik, Gerra amaitu da”. Ezaguna da 1939ko apirilaren 1ean Francisco Francok zabalduriko mezua. Aitzitik, askoz ezezagunagoa zaigu gudaroste errepublikarraren galerak mugaz bestaldean ekarri zuen errealitatea. Hain justu, diktadoreak mezu zitala eman eta hiru egun geroagoi ireki zuten Gurseko kontzentrazio-esparrua, Baionatik 90 kilometrora.

JOSU CHUECA

1 939an, “Erretirada” deitzen zaion erbeste masiboarekin batera, frankisten atzaparretatik ihes egin nahian miliziano eta gudari ohi ugari ere igaro zuten Pirinioetako muga, baina bestaldeira iritsi bezain laster frantziar agintariak desarmatu egin zituzten. Logika militarrek esaten omen zuten Frantziako Estatuan halako jende multzoak ezin zuela armaturik sartu. Aldiz, zer logika solidario zegoen 170.000 lagun gatibu hartzearen atzean, hasieran Roussilloneko hondartzetan, eta geroxeago hainbat departamentutako eremu itxietan?

Tamalez, Espainiako Estatuan gerra galdu ostean, ihes egindakoek horrelako harrera bitxia espero zezaketen Frantzian, agintean zen Fronte Popularraren aldetik. Ederki zekiten hori, 1936an gerra hasi zenetik ezkertiarren koalizio horrek jokabide xeble bezain txepela izan baitzuen Espainiako Errepublikarekiko. Leon Blum lehendakaria, nahiz eta sozialista izan, “parte ez hartzearen politikaren” aurrean makurtu zen 1936ko abuztuan, espainiar errepublika kaltetuz. Eta 1939ko Erretirada garaian, Frantziako Gobernuak gidatzen zuten Edouard Daladierrek askoz okerra-

go jokatu zuten errefuxiatuen aurka. Alde batetik, indarrean jarri zituen hainbat lege, *Indesirables* edo “gizatxarren” atalean sartzen ziren susmagarri guztiak zigortzeko: beraien lurraldetara itzularazi edo atxilotze lekuetan edukitzen zituzten. Bestetik, Daladier, Leon Berarden bitartez, aspaldidanik harremantant zegoen Francorekin bere gobernua aintzatesteko, errepublikarrei bizkarra emanaz.

1939ko otsailaren 28an Philippe Pétain Frantziako enbaxadore bidali zuten Burgosera –Manuel Azañak erbestean Espainiako Bigarren Errepublikaren lehendakaritza utzi zuen egun berean–. Hala, bi aldeek errefuxiatuen kontrako hesi politiko-militarra itxi zuten, eta Albert Sarraut frantziar Barne ministroak kanpotar horien aurka legistatu zuen, militarren laguntzarekin. Frantziako Armadak gatibu zelaia sortu zituen hutsetik, Ariegen, Auden, Heraluten, Tarn et Garonnen eta Behe Pirinioetako departamentuetan. Francoren mezuan zetorren gatibutasuna, Frantzian ere, ezustean ezarri zitzaion iheslarien gehiengoari.


Jendarmeez eta militarrek bideratuta, Argelesera eta Saint Cyprienera joan

ziren milaka lagunek lehen zaputaldia jaso zuten hondar, zeru, itsaso eta txarrantxen artean.

Frantziako gobernuak ez zuen egoera hori egun batetik bestera diseinatu; 1938az geroztik bertako agintariak aurreikusten ari ziren Espainiako Errepublikaren porrota, eta horren ondorioz, erbesteratuen uholdeak. Artxiboetan kontsulta daitezkeen plano eta txostenen arabera, Saint Cyprien eta beste hainbat tokitan kontzentrazio zelaia izateko hala moduzko oinarritzko eremuak antzemanda zituzten armadako ingeniariak. Baina 1939ko Erretiradak sorrarazitako erbesteratuen gizatalde ikaragarriak gainditu egin zituen aurreikuspen guztiak. Aitzakia hori erabili zuten urte askoan, Frantziaren jarrera doilorra zuritzeko.

“ESKUBIDE MOTZAK, JANARI GUTXI, ZAINDARI GEHIEGI”

Dena den, askoz zailagoa izan dute 1939ko udaberrian eraikitako Sept Fonds, Bram, Noe, Agde, Gurs eta antzeko zelai berrien jite errepresiboa justifikatzea. Eufemismoak (Harrera Zelaia, Barneratze eremua, Errefuxiatu





espainiarren zelaiak, Zaindutako Egoaldien Barrutia...) ez ziren nahikoa hor egondakoek jasandako sufrikarioa estaltzeko.

Euskaraz idatziriko hainbat kroniketan antzematen da euskaldunek bizi izan zuten egoera. 1939ko otsailean eta martxoan Argelesen eta apirillean Gursen izan zen Ander Garate *Gesalibar* arrasatearrak, oso ongi islatu zituen errefuxiatuek txarrantxen artean jasandakoak. Barneratua egon zen hilabete eskasak aski izan zituen jabetzeko zer nolako politika berezia zegoen errefuxiatuekiko. Hiru kontzentrazio guntan –Beziars, Argeles eta Gurs– egon zenez, bazuen eskarmenturik horiek deskribatu eta aztertzeko. Lehen kroniketan, ikuspegi baikorra erakutsi zuen, batez ere euskaldunek autoeraketaren bitartez egoerari aurre egiten ziotelako, baina azkenekoetan, Gursen, alde zabarragoa azaldu zituen. Arras ongi laburbildu zuen *Gurseko Zelaetik* deituriko kronikan: “Eskubide motzak, janari gutxi, zaindari gehiegi”.

Mingotsagoak izan ziren Gursetik bertatik edo Brametik eta Le Vernetetik ateratako beste testigantza batzuk. Es-

kutitz, egunkari edo txostenetan, baita geroago, lan literarioen bidez, Leonardo Salazarrek, Celestino Uriartek, Agustín Centellesek, Max Aubek edo Arthur Koestlerrek idatzirikoak ditugu adibide. Denen hitzetan nabari zen “harrera lekuak” izateko sorturiko eremuak egiaz kontzentrazio zelaiak bilakatu zirela. Hori aski ez balitz, sorterrira itzuli arteko behin behineko azpiegitura izan behar zuenak, Bigarren Mundu Gerrarekin iraun ez ezik, baldintzak erabat okertu ziren.

1936ko Gerraren ondorioz Pirinioen hegoaldetik joandako errefuxiatuen kopurua gutxitzen joan zen: horietako asko berriz ere Espainiara itzuli zituztelako, Frantzia lana bilatu eta laketu zirelako, baita Amerikako bigarren erbesteratzeari ekin ziotelako ere. Baina zelaien sarea desegin beharrean sendotu egin zen, Daladierren eta Reynauden gobernuekin lehenik eta Vichyko agintariekin ondoren. Bigarren Mundu Gerrako atxilotze politika gogortu egin zen eta 1940az geroztik. *Indesirables* sail zabalean sartzen ziren judutarrak, komunistak, Austria, Alemania, Italia zein Espainiako errefuxiatuak, gizo-

nezkoak eta emakumezkoak, zaharrak eta gazteak... Horiek guztiek birpopulatu zituzten erdi hutsik zeuden zelaiak.

Argeles, Rivesaltes, Rieucros eta Gurs, naziek kontrolaturiko Europan indarrean jarritako *Triskantza politika*-ren beste kate-maila bat bihurtu ziren, bereziki 1942tik aurrera. Horietatik atera ziren, “helmugarik gabeko konboietan” Auschwitzera edo Mauthausenera hiltzera zihoazen milaka lagun, Urte hartan martxan jarritako “Behin Betiko Erabakia”-rekin konplutuz.

Bigarren Mundu Gerran izandako atxiloteta, sarekada, barneratze masibo, deportazio eta hilketa jendetsuek aurrekari zuzen bat izan zuten beraz: 1939ko Erretiradaren ondorioz eraturiko *France des Camps* delakoa. “Harrera” eta antzeko hitz leungarrien azpian, giza eskubideen ukazioa ezkututzen zen, errefuxiatuen kalterako. 80 urte geroago, eskala aldatuta, antzeko egoerak ditugu Europako mugetan eta barne atxilotze leketan. Eufemismoak eufemismo, jarrera tamalgarria dute Europako estatuek oraingo errefuxiatu eta migratzaileekiko. ●

HEDO I ETXARTE

"Voxi ez, haren diskurtsoa egiten duenari begiratu"

Martxoaren 20an ia ehun pertsona bildu ziren Azpeitiako San Agustin Aretoan Hedoi Etxarteren (Iruñea, 1986) hitzaldia entzuteko: "Faxismoa, gaur eta hemen". Munduan, Europan eta Euskal Herrian ere modan dira eskuin muturra eta honen bultzada, gero eta sarrigo gainera, ukitu zibilizatuaren atzean gordetzen dena. Hemen hitzaldiaren laburpena eta gure webgunean osorik bideoan.

TESTUA | XABIER LETONA
ARGAZKIAK | ENERITZ ARZALLUZ

Urola bailaran apustuen gaiari aurre egiteagatik ezagun egin den Elkar-ekin taldeak eta ARGIAk antolatu dute hitzaldia, azken honen mendeurreneko ekitaldien harira. Etxartek argi utzi nahi izan du faxismoa kapitalismoari erabat lotuta dagoela eta aipatu du 36ko Gerran brigada internazionalistetan aritu zen George Orwell idazle britainiarra: "Espainian ikusitakoaren ostean honako ondorioa ateratu dut: alferrikakoa da *antifaxista* izan nahi izatea kapitalismoa gordez. Faxismoa, azken batean, kapitalismoaren garapen bat da, eta demokraziarik liberalena –esan ohi dugun bezala– prest dago faxismo bihurtzeko lehenengo zailtasuna suertatzean".

Bertolt Brecht eta bere *Egia idazteko bost zailtasun* dakar ondoren. "Testu hori kazetaritza ala artearen bidez mundua norabide askatzailean jarri nahi duen edonorrentzat katixima bat izan beharko litzateke –dio iruindarrak–. Hemen pasarte ezagun hau: "Zertarako balio du faxismoa kondenatzeak, ez bada deus ere esaten hura sortzen duen kapitalismoaz?"

Brecht argi utzi nahi izan zuen faxismoa ez zela kasualitatez herrialde batzuen gainean eroritako "izurrite natural bat bezalakoa", edo kapitalismoaren eta sozialismoaren artean jaiotako "hirugarren indar bat"; ez, haren esanetan, faxismoa "kapitalismoaren fase historikoa" da. "Faxismoaren aurka egotea kapitalismoa-

ren aurka egon gabe, basakeriatik jaiotzen den basakeriaren aurka ez egotea da: txekorraren zati bat nahi izatea da, haren sakrifizioaren aurka eginez".

Faxismoa sarri gutxiesten dela zehaztu du Etxartek eta ekarri du gogora Clara Zetkin politikari alemaniar sozialistak 1923an Moskuko Internazional Komunistan esandakoa: "Orain arte oso ideia lausoak izan dira gai honen inguruan eta ez soilik langile masa zabalen artean, proletario iraultzaileen abangoardiaren artean eta komunisten artean ere hala izan da". Horregatik, Zetkin argi zuen: "Proletario guztiek bat egin behar dute faxismoaren aurkako borrokan".

ADI FAXISMOAREKIN!

"Joera daukagu pentsatzeko –jarraitzen du Etxartek– faxismoa beste garai batzuetako fenomeno bat dela, ala beste latitude batzuetakoa. Baina ez, faxismoa, kapitalismo historikoa, forma eta izen ezberdinekin mundu osoan zabaltzen ari da, XX. mendeko 20ko hamarkadaren hasieratik gertatu zen bezala".

Iragan urtarrileko hainbat gertaera ere aipatu ditu, haien itzal autoritarioa azpimarratuz. Amurrion polizia ohi baten ezker abertzaleko familia baten baserriaren kontra egindako eraso gogo-

ratu du eta oso kritiko agertu da Andoni Ortuzar jeltzaleak gertaerari garrantzia kendu izanaz: "Biolentzia parapolizialaren banalizazioa eskuin muturraren ezaugarrietako bat da".

Kritika zorrotza eginez, aipatu du Iruñean Foru Poliziak Maravillas Gaztetxeko gazteen aurka erabilitako errepresioa: "Hiru arratsaldetan 70 pertsona zauritu zituzten. Lauko gobernua egin zuenez, ez zen erantzun sozialik izan; Barcinak egin izan balu, 20.000 pertso-

na aterako ziren kalera.

Hau da, faxismoa ez da iristen kolpeka, ez du boterea hartu behar, boterea egin dago bere neurrirra, sarri halako lasaitasunarekin helitzen da, ez beti botere militarra erabiliz. Jende askoren sentsibilitatea bitxia da, arduratzen da gehiago ate bat pinta-

tuta agertzen delako [EA]ren egoitzako atean pintaketak agertu ziren egun horietan] dozenaka pertsona zaurituak izateagatik baino".

Gasteizen emakume beltz batek autobus publiko bateko gidariarekin alabaren patineta medio izandako liskarra ere aipatu du: "Gidariaren jarrera arrazistaz gain, gizon batek mehatxu faxistak egin zizkion emakumeari eta autobusean ez zen inongo erreakziorik izan". Etxarteren



ustez, gertaera hauek bezain garrantzitsua izan zen hurrengo egunean Gorka Urtaran Gasteizko alkateak gidariaren jarreran arazorik ez ikustea: “Zapalkuntzaren normaltasuna da eskuin muturraren ezaugarrietako bat”.

NOLA IRISTEN DA FAXISMOA GURERA?

Galdera bota eta historiara jo du berriz Etxartek, begiak Alemaniako Weimarreko Errepublikan (1918-1933) finkatuz. Berau demokrazian eta era baketsuan eratu zela azpimarratzen dela gogorarazten du, baina hori ukatu eta errepublika hura milaka espartakisten heriotzaren gainean eraiki zela zehaztu du: “Rosa Luxemburg eta Karl Liebknecht hil zituzten agintari sozialdemokratek erabaki zuten beren boterea kosta ahala kosta finkatzea eta horretarako armada nahiko ez zutenez, sortu zituzten miliziak, gero Italian eratuko zirenen oso antzekoak; haie-tatik sortu zen gero mugimendu nazia”.

“Gaur egunera etorri -jarraitzen du Etxartek-, autoritarismoa nondik datorren ikusteko, hedabideek nahi dute Vox alderdira begira dezagun, baina honek ez ditu Mozal Legea eta Alderdien Legea egin, ez da Franco 40 urtez egon den lekuan egotearen arduraduna, ez da Vox gure udalen gastu sabaia finkatu duena... Gaur egun European hedatzen ari den eskuin muturrak ez du zerikusirik, gutxienez sinbolikoki, esbastikarekin. Bere ere-

duetakoa da, adibidez, Herbehereetako eskuin muturra, hedabideetan zaratarik ateratzen ez duena, kutsu soziala duena eta etorkinak gaur egungo judu gisa hartzen dituen. Eta berdintsu gertatzen da Alemanian AfDrekin; hauek ez dira neozien harikoak, itxura oso ohikoa dute eta ez dira desfile martzialetan aritzen mitinetan... Beraz, Euskal Herrian eskuin muturrari begiratzean, ez diogu begiratu behar Voxi, eskuin muturraren diskurtsoak egiten dituen jende horri baizik”.

Hiru ideiarekin amaitu zuen Etxartek, Gorge Orwelek berak 1984 bere liburu ezagunaz egin dako aipua irakurriz: “Uste dut ideia totalitarioak intelektual guztien espirituan sustraituta daudela eta saiatu nintzen 1984-an ideia horiek beren ondorio logikoetaraino eramaten. Liburuaren intriga Ingalaterran kokatuta dago, insistitzeko ingelesez hitz egiten duten herrialdeak ez direla, naturaz, hobeak eta totalitarismoak – baldin eta bere kontra borrokatzen ez bada – edonon irabaz dezakeela”.

Etxarteren esanetan, faxismoari aurre egin behar zaio, baina “gaur egun, aurre egin beharrean ateak irekitzen ari gara”. Horren adibide gisa jarri zituen

Grezia, Ukraina, Siria, Libia, Katalunia, Venezuela, India eta Yemen, eta haue-tan gertatutakoaren aurrean ezer gutxi egiten ari garela salatu zuen. “Uste dugu gure militantziarekin nahikoa dela, baina ez. Faxismoari erantzun ezohikoa ematen ez bazaio, irabazten du”. Beraz, mugimendu sozialak indartu beharra azpimarratu du Etxartek eta esperantzaz begiratzen die bere ustez gaur egun horien artean indartsuen ari diren “sindikalismoa eta feminismoari”. Zehaztu du, halaber, erantzun intelektuala ere oso garrantzitsua dela: “Oso adi entzun

behar dugu nola hitz egiten duen faxismoak eta nori, nork entzuten duen eta zergatik”.

Azkenik, bere ustez, erantzunen artean ezinbestekoa da “alternatibak eraikitzea” eta hauek ezinbestean “kolektiboak eta partekatuak” izan behar dute. Eta amaitzeko, alternatiba hauei buruz hitz egiten dituen hiru

“Herbehereetako eskuin muturra, hedabideetan zaratarik ateratzen ez duena, kutsu soziala duena eta etorkinak gaur egungo judu gisa hartzen dituen”

liburu gomendatu ditu: Iñaki Etxelekur-en *ZAD bizi dutenen ahotik* (Gatuzain 2018), Onintza Iruretaren *Berdea da more berria* (Argia, 2019) eta *Rote Zora*, ekintza zuzena praktikatzeko talde feminista bati buruzkoa, eta sarean libre aurki daitekeena. ●

LATINEZ ZORROTZ



JAKOBA ERREKONDO
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

IRAKURLE BATEK GALDETU DIT IHIAK ZER IZEN DUEN, ZER EGIN GALTZEKO, NOLA UGALTZEN DEN... BELARDIAK "IZORRATZEN" ARI OMEN ZAIZKIE.

Gorritik ekiten dio sasoi berriari laharrak, *Rubus fruticosus* eta *Rubus ulmifolius*. Zurtoin gorrian kimu eta hosto berriak gorri-gorriak dira, laster berdetuko badira ere. Udazkenean, hotzak azala erretzen dionean ere, hostoak gorritu egingo dira. Guriean gorri, eta zahar zakartzean ere gorri. Batzuek diote generoaren *Rubus* izena hortik ote datorkion, latineko "ruber" gorritik, alegia. Beste batzuek latin bereko "rübus" duela iturri, lahar edo sasi esateko hitza. Arantzak ere gorriak ditu, biguinak orain berritan, uda azkenera iristerako zaildu eta zurrunduko direnak. Zorrotz, animalia belarjaleen hortzak urruntzeko. Fransesez "ronce" esaten diote, dardo edo gezi esan nahi duen latineko "rumex-rumicis" hitzetik eratorria.

Rumex landare generoa uztaoarena edo lapaitzarena da. Genero honetako landareen euskarazko berrogeita bi izen jarri nituen hementxe 2007ko uztailaren 15eko alean, landareen txoko honek hamabi urte betetzen zituen egun berean. Orduan nioen *Rumex* izen hori latineko "rumo" hitzetik zetorrela, zeinak xurgatu edo murtxatu esan nahi duen; itxuraz garai batean, freskagarri premian, landare honen hosto gazi-gaziak murtxukatzen zituzten. Orain topatzen dut "rumex" hitzak berak dardo edo gezi esan nahi duela, landare genero horren hostoen forma nabarmentzen duena. Izan ere bere hostoak lantza edo ezten haga itxura garbia du. Gaztelaraz "romaza" ere esaten diote.

Zorrotz itxurako landareei helduta, galdetu berri dit Beñatek [ratzea.eus webgunetik ihiak zer izen duen, zer egin galtzeko, nola ugaltzen den eta zer gustatzen zaion bizitzeko; agi danean, belardiak "izorratzen" ari zaizkie. Beste landare punta zorrotz bat; eta zorrotzaren mina ematen du. Lur azido, heze eta buztintsuak gustatzen zaizkio; haizearen bidez polinizatzen da eta kentzeko karea eta sega dantzatu behar dira. Ihiak *Juncus* generokoak dira. Honek ez du lantza edo gezi tankerako esanahirik. Latinez bera esateko zuten "iuncus" edo lotu edo elkartu esan nahi duen "jungere"tik omen dator. Lokarri gisa erabili izan da. Asmazazu!](http://www.biziba-</p>
</div>
<div data-bbox=)

Guri latina irakatsi nahi izan zigutenean atentzio gehixeago jarri izan banu, agian izen horien zalantzei buruzko nire iritzia emango nizuke. Asmatu duzu bai, ez nuen, ez, latina batere gustuko. ●

AIARALDEA AZOKAK ETA MERKATUAK

TOKIKO PRODUKTU ETA EKOIZLEEN MARKA BATERATUA AIARAN



**GARAZI
ZABALETA**



Aiarako Kuadrillak martxan jarri berri duen egitasmoa da "Aiaraldea Azokak eta Merkatuak" marka. Eskualdean nekazarien eta artisauen azoka ugari egiten dituzte, baina guztiak logotipo beraren barruan kokatzearekin ekimenei indarra eta ikusgarritasuna eman nahi diete: "Gure azokak ezagutzera ematea eta bertako ekoizle, abeltzain eta artisauak ikusaraztea da helburua", zioen Maider Basterra Aiarako Kuadrillako lehendakariak Radio Vitoriako elkarrizketan.

ESKUALDEKO AZOKEN IKERKETA

Eskualdeko baserritar, ekoizle nahiz artisau asko proiektu eta bide berrien bila ari ziren lanean, bizi zuten egoera zailak horretara behartuta. Aiarako Kuadrillak ere zer egina bazuela ikusi eta Arabako Foru Aldundiaren diru laguntza baliatuta ikerketa abiatzea erabaki zuten: herritako azoka eta merkatuak aztertzeari ekin zion hutsuneak identifikatu eta horiei buelta emateko. "Lehen sektorearen eta artisauengandik azterketa hori egiteko eskaria genuen: turistak ezezik bertako kontsumitzaileak ere erakartzeko formula berriak bilatu beharra zegoen", azaldu zuen Basterrak. AMIA analisía-ahulguneak, mehatxuak, indarguneak eta aukerak-egin dute ikerketan, eta bertan ateratako ondorio nagusietakoa

izan da eskualdeko azoka eta merkatuek duten ezberdintzeko beharra.

EZBERDINTZEKO MARKA ETA LOGOTIPOA SORTU DITUZTE

Proiektuaren inguruko prentsa oharrean azaldu dutenez, ikerketak agerian utzi du erosleak jada ez direla produktuen kalitatearekin soilik konformatzen, eta ezinbestekoa dela produktuok besteengandik bereizteko eta ezberdintzeko tresnak sortzea. "Low cost kulturarentz doan mundu honetan ezin da prezioan lehiatu. Ezberdintasuna markatzea da aukera bakarra", diote dokumentuan. Kuadrillako lehendakariaren ustez, ezberdintzeko ezezik, kontsumitzaileek produktuok kokatzeko ere balioko du markak.

Bereizteko lehen pausoa izan da denek erabiliko duten marka eta logotipoa sortzea. Baserriko bizimodua berreskuratzeko eta tokiko ekoizpena bultzatzeko Kuadrillaren ekarpena izan da merkaturaren gaineko ikerketa egitea eta "Aiaraldea Azokak eta Merkatuak" marka eta logotipoa sortzea. Aurrerantzean pauso gehiago ematen jarraitu beharko dutela argi azaldu zuen Basterrak elkarrizketan: "Lehen sektorearekin elkarlanean jarraituko dugu, jendea berriz ilusioatzeke eta jada lan izugarria egiten ari diren ekoizle horiek babesteko". ●



► Gazte Sortzaileak beka

[IKUSKIZUNA]

"Tripak: huts bete hots"

2019/04/04, 20:30

Eguzki Donnellan & Haizea Beruete
Oihaneder Euskararen Etxea

[IKUSKIZUNA]

"Aioko uhartea"

2019-04-11, 18:30

Eñaut Gorbea Lopez de Uralde
Itzal titereak

Algabe gizarte etxea

[2019KO GAZTE SORTZAILEAK BEKAREN DEIALDIA]



16-35 urte bitarteko gazte arabarrak edo bertan ikasten ari direnak
Saria: 4.000
Oinarriak eta informazioa:
v-g.eus/gaztesortzaileak

► Oihaneder Euskararen Etxea

[ILUNABARREAN DANTZAN]

2019-04-07, 19:00

Patxi Montero

[BEGI BELARRI]

"Herensuge zuri artean"

2019-04-11, 19:00

Zerainek Nanga Parbatan egindako espedizioaren inguruko dokumentala.
Solosalidia: Inaxio Lopez de Arana.

► Gizarte etxeak

[IKUSKIZUNA]

"Harriek kontatu didatena"

2019-04-09, 19:00

Ane Gebara

Arriaga gizarte etxea

[IDAZLEEKIN SOLASEAN]

Arantxa Urretabizkaia

2019-04-10, 19:00

Pilar gizarte etxea

[TAILERRA]

"Nola kontatu ipuinak haur txikiei"

2019-04-12, 19:00

Iñaki Carretero

Judimendiko gizarte etxea



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

2007ko irailaren 23a



KOLDO IZAGIRRE

Picassok bazekien, Gernika izanen zena margotzeari ekin zionerako, gerrak berak eskainiko ziola titulurik onena.

1937, apirilak 25. Euzkadiren askatasuna idazten diardugu gure mendietan. Joaldirik bizenak Elgeta-Elorrio aldean. Gure mutilak, abertzaletasunak bakarrik eragin daiken indarraz, oinik oin zaindu ta aldeztuten dabe gure lurra. Paxisten egazkin ugari mendietan. Galdakano, Erandio, Lexona ta Getxo suagatu zituzten atzokoan paxistar basatien egazkinak. Apirilak 28. Gure mutilak kementsu ta zindo agertuten dira. Arerioaren asmo ta gurariak ondoren latza eruango dabe. Atzo egunez joaldi beruak egin ziran Durango ingurutan, baina gureak atzerantz jaurti eben arerioa. Paxisten egazkinak ezin nasaitasunez ibili laino artean. Eguraldi txarra. Apirilak 29. Tinko, euzkotarrak! Irmo! Paxisten gurariak ezereztu ta atzeratuteko guztiok gertu! Durango ingurutan joaldi gogorak. Aldi larri oneitan Aberriari bere burua eskintzen aztautsana ezta abertzale zindua. Apirilak 30. Gora biotzak euzkotarrak, eta aurrera! Gurasuak daukazanak, gurasuakaitik. Semiak dauzanak, semetxu maitiakaitik. Ezkongei dagozanak, euren emaztegaiakaitik. Guztiok oldozkun bategaz, gure maitasun guztiak bere babesian artuten dauzan Euskadiren askatasunarren, arerioa zapaldutera! Maiatzak 1. España itxaslapurra betiko ondoratuta geratu da. Santander aurrean, ingeles merkanteria bateri jarraitzen asi zanean, egazkinlariak bonbak jaurti ta ondoratzea lortu eben. Itxasertzetik lau milara, antxe geratu da betiko. Españaren ondoratzeak poza ta adorea gure gudarietan.

Gerra sortu zenetik lantu bera Eguna egunkarian, Egazkinak bear doguz, egazkinak bear doguz! Eta Madrilek poemak bidaltzen: Eutsi Bilbao, eutsi burdinazko euskaldun leialok!

Motorrak eta hegalak eman zizkigun Picassok. ●

Katalunia,
ezagun zahar hori

Vilaweb atariko Vicent Partal Interneti buruzko hitzaldia ematen, ondoan Argiako Xabier Letona duela. 2007an eman zuen hitzaldia, Argiaren webgunearen hamargarren urteurreneko ekitaldien baitan.

MIREN OSA GALDONA

Harreman estua bezain berezia du ARGIAK Kataluniarekin. Modu askotako elkarlana egon da (eta dago) ARGIA eta hainbat hedabide katalanen artean.

Euskaldunon Egunkaria sortu berrian, *El Periodico* eta *El Punt* hedabideek pisuzko garrantzia izan zuten egunkariaren dinamika eta metodologia zehazterakoan. Hala egin zituen lehen kontaktuak Pello Zubiriak kataluniarrekin.

Aro digitalean sartu berrian ere, interneteko jarduna hobetzeko Kataluniari begiratu zion ARGIAK. Xabier Letonak azaldu duenez, "erreferente" moduan ikusten zuten 2000. hamarkadako langileek *Vilaweb* kazeta. ARGIAK orduarako webgunea sortua bazuen ere, Vicent Partal eta konpainiak zituzten ezagutza teknologikotik urrun ikusten zuten euren burua. Zer hobetik orduan maisuarengatik ikastea baino? Hala joan ziren *Vilaweb*-ko erredakzioa ezagutzera, eta han ikusi eta ikasitakoaren ondoren iritsi zen ARGIAko lehen ikus-entzuznekoa, 2006. urtean.

Bada beste gertakari bitxi bat. Carles Puigdemontek, Katalunia-

ko presidente izan aurretik, ARGIAK kolaboratu izan zuen. Harremana mantendu zuten bi aldeek eta noizean behin mahai baten bueltan bildu izan ziren. *El Punt* astekariko erredaktore burua zen garai hartan Puigdemont. Gironako alkate gisa ere idatzi zuen artikulu bat edo beste ARGIAN.

Gaur egunera etorrita, tokian tokiko panorama politikoari erreparatzeko asmoz hasi ziren ARGIA eta *La Directa* elkarlanean duela hainbat urte (*El Salto* ere operazio horren parte da). 2006ean ezagutu zuten elkar Axier Lopez eta David Bou kazetariak, Ahotsa.infok Iruñean antolatutako jardunaldi batzuetan. Pixkanaka, kazetaritza independentearen aldeko elkarlana sustatzen hasi ziren hedabide hauek. Saretze horren emaitzak dira, besteak beste, Telegram kanal propioa, *Els carrers seran sempre nostres* kamiseten irabazien zati bat *La Directa* indartzeko baliatzea eta David Bouren kolaborazioa ARGIA astekarian.

ARGIA eta Kataluniaren arteko harremana emankorra izan dadila urte luzez. ●

HALA BEDI IRRATIA

Uhinen azpitik eta mozalen gaineratik

Epaiketa izan berri du Hala Bediko kazetari Mikel Saenz de Buruagak. Ertzaintzak Mozal Legeaz zigortu nahi duen kazetari bati eginiko lehen epaiketa da.

ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

Zenbat harreman-mota izango ote ditu gutako bakoitzak. Zenbat harreman-mota ote daude munduan. Kontaezinak izango dira harreman-mota guztiak, beti aterako baita berriren bat, desberdinen bat. ARGIAK baditu makina bat harreman. Motzean esanda, oso motzean, motzegi seguru asko: onak, ez hain onak eta txarrak. Eskala horren barruan, denetarik. Baina baditu elkarlan harreman aunitz.

Elkarlanetik iritsi da Herrialde Katalanetako *La Directa* hedabideko Jesus Rodriguez kazetariak apirilaren 5ean Gasteizen, Hala Bediren lokalean emango duen hitzaldia. ARGIAK Hala Bedi irratiarekin eta *La Directa*rekin dituen harremanetatik. Kataluniako egoera politikoaz hitz egingo digu Rodriguezek, horretan aditua baita. Harreman handia dute hiru proiektu komunikatiboek; desberdin izanik ere oinarrian dituzten baloreetan eraikitzen dute laguntasuna. Hala Bedi irratia ondoan hitzaldi, elkarrizketa eta eztabaidetarako berriki prestatu duten lokal berrian izango da ekitaldia, 18:30ean hasita. Eguna biribiltzeko, Hala Bedi irratia eta Gasteizko Gaztetxearen artean hilabetero antolatzen duten "Muinoko-Hotsak" kontzertu sorta ere 21:00etatik aurrera izango da Gaztetxean. Pelax eta Bide Lapurrak taldeak ikusteko aukera izango dugu.

Baina ez da egun soil batera mugatzen elkarlana. Astero Hala Bedi parte den Arrosa Sareko *Zerabidea* saioan ARGIA

astekariko gaien erreposoa egiten da, eta etxe honetako kazetariak ere egiten dituzte kolaborazioak uhinetan. Eta aldeantiz ere, modu naturalean eta *Creative Commons* lizentzia libreerik esker, Hala Bedi argitaratutako albisteak eta elkarrizketa interesgarriak ere hartzen ditu ARGIAk, bere webgunean gehitzeko. Txikion artean, lagun artean, independenteon artean, denon artean komunikazioa errazagoa eta eraginkorragoa da.

Tamalez, ordea, ez dira elkarrizketa interesgarriak eta lizentzia libreak, Hala Bedi eta ARGIA batzen dituen gauza bakarrak. Batzen dituzte isunek edo isun arriskuek ere. Batzen ditu Mozal Legearen eta Ertzaintzaren jo-puntuan egoteak. Lander Arbelaitz ARGIAko kazetaria, kalean izandako hizkuntz eskubide urraketa baten berri emateagatik, epaiketa arriskuan dagoela jakin dugu hilabete honetan, bi ertzainek bere kontrako salaketa jarri baitute.

Mikel Saenz de Buruaga Hala Bediko kazetariari, 2017ko maiatzean Errekaleor auzoko argi-mozketaren berri eman zuelako, Ertzaintzak eta Eusko Jaurlaritzak Mozal Legea aplikatu zioten. Errekurtso guztiak agortuta, administrazioarekiko auzi-epaiketa izan berri du, asteartean. Mozal Legeaz Eusko Jaurlaritzak zigortu duen lehen kazetaria da. Berrero diogu, astearte honetan Buruaga deklaritzen ari zela epaitegi atarian esan bezala: kazetaritza ez da delitua, kazetaritzari mozalik ez. ●



ARGIA

1919 · 2019

EKITALDIAK

HIZKUNTZA ESKUBIDEAK, NORENAK?!**MAHAI-INGURUA**

Mahaikideak:

Eneka Alvarez eta Arkaitz Zarraga

Arrasate Kulturate

Apirilak 4, 19:00

Arrasate Euskaldun Dezagun
elkartearekin elkarlanean.**KATALUNIako PROZESUA ETA GARAIPENAREN IKASBIDEAK HITZALDIA**

Hizlaria: Jesús Rodríguez (Directa)

Gasteiz Hala Bediren lokala

Apirilak 5, 18:30

Hala Bedi irratiarekin elkarlanean.

AZOKA

AZOKA.ARGIA.EUS

**BIEZKO LANDETxea**

Atxondon, Anboto azpiko paraje zoragarrian dagoen Biezko landetxean, bi lagunentzako egonaldia.

MUSUTRUK JARRIKO DEN EGUNA:

Apirilak 11, osteguna, 10:00etan.

**NOLA DA "MUSUTRUK"?**

Ostegunetan 10:00etan jartzen ditugu Argia Jendearentzat musutruk dauden gaiak eta zozketarik gabe, bizkorren eramaten dituenarentzat dira.

Ondasunak banatu ditzagun, urtean musutruk gai bat hartzea eskatzen da. Denon esku dago Argia Komunitatea elikatzea, bakoitzak ahal duena besteen esku musutruk jarrita.

1963-1993

Euskal zarataren genealogia txiki bat

Xabier Erkiziak kontatu digu nola Julio Caro Baroja antropologo eta historialariak lapiko-jotzeen iturburu zenbait euskal herrietako ohituretan topatu zuen. Jakina da 70eko hamarkada bitarte Lesaka eta inguruko herrietan, esaterako, ezkontzera zihoazen bikote gazteak omentzeko haien etxepean tobera jotzea usadioa izan dutela. Kontua da, hainbat mende lehenago, txalapartaren antzeko tresna metaliko hura lapiko eta antzekoez ordezkatzeko zutela ezkongaiak alargun zahar bat eta neska gazte bat zirenean. Halakoetan, gazte berberak zalaparta eta iskanbila sortzea izaten zuten nahiago, beraien mespretxua adierazi asmoz.

JON URZELAI

Bistan da, euskal zarataren genealogia bat osatzerakoan, nahi beste egin genezake atzera. Dena dela, euskal kultura garaikideak onespenez zabaleko erro argirik badu, horixe Ez Dok Amairu da eta haiengan kanonekiko arbuioa ere bada elementu garrantzitsu bat, euskal tradizioen biziberritzeaz gaindi. Artzeren lanak badu hortik, adibidez, eta Laboaren ekarpena agerikoa da. Izen handiez harago, Zabala anaien eragina azpimarratu digu Xabier Erkiziak urte horiez aritzerakoan. Jose Mari Zabalak *Axut* film esperimentalaren zuzendutakoaren 1977an, baina aurretik jada bere sormena gitarraren aukera ezberdinak aztertzerako eta soinu esperimentaziora bideratu zituen Mikel Laboarekin egindako lanean. *Bat-Hiru* diskoko *Zaude lasai* eta *Haika mutil* bezalako abestiek gordetzen dituzten elementu ezerosoak entzun besterik ez dago gogo hori somatzeko. Jose Luis anaia, bitartean, Artzerekin aritu zen jada *Isturitzetik Tolosan*

barru (1969) lan ezagunean eta *Gizon haundia da mundua, eta mundu ttikia gizona* (1988) eta *Mundua gizonarentzat egina da, baina ez gizona munduarentzat* (1998) diskoak ekoitzi eta hots eta soinu anitzez ere hornitu zituen.

Artzek *Dakienak ba daki* kantan honakoa dio: “Dakienak badaki nora dijoan jakiteko, behar duela nondik datorren jakin”. Horretarako, euskal kulturagintza gainazalera inoiz heldu ez diren izenei ere jaramon egin behar zaie, ordea. Xabier Erkiziak dio 60ko hamarkadan “oraindik argia inoiz ikusi ez duten lan oso potenteak daudela”, norbaitek noiz zabalduko zain. Nolanahi ere, halakoetara jo gabe, Luis de Pablo konpositoreak 1970. urtean argitaratutako *We* lanaren garrantzia azpimarratzea ekidin ezina iruditzen zaio. Soinu *collage*-aren teknikaren bitartez, disko honek “soinu musikal eta ez musikalen arteko zubiak eraiki zituela” baitio Erkiziak. Musika konkretua delakoaren erabilpenean oi-



narrituriko lan honez gain, aldarrikatze-koak iruditzen zaizkio, halaber, Esther Ferrer donostiarraren eta ZAJ taldearen ibilbideak. Espazio kontuengatik haien lanaren nondik norakoak ezin garatu ditzakegun arren, musikaren mugak zabalteko asmotan haiek egindakoek merezi dute, bederen, aipamenik.

Munduan sortzen ari ziren molde berriak geure musiketan txertatzeko ahalginak ere egin ziren 70eko hamarkadan. Horretan Herri Gogoako diskoetxeak egindako saiakerei aitorza egin behar zaie, William S. Fischer, Shegundo Galarza edo Tomas Aragüesen lanen bidez geure mugen barnera estereotipoak hausteko gogoia ekartzen saiatu baitzen zigilua. Halakorik lortu ote zuen, noski, besterik da.

ERRADIKAL ASKEAK

Folk eta rock progresiboan oinarritutako taldeek ere jolastu zuten zaratekin –Haizeak, adibidez– baina punkaren ez-



EL SAITO

EL DESVÁN DEL MACHO TALDEKO KIDEAK 2017KO ARGAZKI BATEAN. 1990EKO HAMARKADAREN HASIERAN, CANCER MOONEKIN BATERA, TALDE HONEK JARRI ZITUEN OINARRIAK EUSKAL HERRIAN GERORA JORRATUKO ZEN ROCK ZIKIN ETA ALDREBESTUARENTZAT.

tandak joko-arauak birdefinitu eta arreta guztia aldendu zuen halakoetatik. 80ko hamarkadako abarrots hori deskodetu nahian luze idatzi izan denez, geure egitekoa fenomeno hark itzalpean utzi zuenari so egitea izango da. Punkaren garaipen erabatekoak bestelako soinuak jorratzen zituzten taldeen aukerak mugatu zituen, baita paradoxikoki garai berean iritsi zen post-punka lantzen zutenenak ere. Arrasaten RIP taldearen garai berean, adibidez, Matrona Impúdicoak ere aritu ziren. Haien musikak kutsu ilunagoa zuen, letra poetikoagoak zituzten eta garai hartan gurean oihartzun handirik izan ez zuten beste estetika batzuei erreparatzen zieten José Izcuek gidatutako proiektu hartan. Taldearen errautsetatik sortuko zen Jugos de Otros, Tercero en Discordia izeneko taldetik etorritako lagunekin osatua. José Izcue eta bere anaia Francisco, Jesús Suinaga eta Josetxo Anitua arituko ziren bertan, eta taldearen ibilbide la-

burraren ondotik beste bi talde berri sortuko ziren: El Desván del Macho eta Cancer Moon.

Cancer Moonen *Hunted By The Snake* (1990) eta El Desván del Machoren *Hermana violencia* (1992) diskoek gerora jorratuko zen rock zikin eta aldrebestuaren zutabe nagusiak ezarriko zituzten. Bi talde hauek ez ziren, halere, rockaren eta punkaren mugetan arakatzeko aritu ziren bakarrak izan eta horretan jardun zutenen artean Donostia inguruko Buenavista lokaletako hainbat talde –La Perrera–, Bilbokoak –La Secta, Los Clavos– edota Iruñekoak –Los Bichos– ere aipa genitzake.

Punkaren ertzetan bestelako eredu batzuk ere jaiotzen hasiak ziren garai hartarako, era paraleloan bidea egiten ari zirenak. *Noise*-ak eta soinu industrialek bere garrantzia izan zuten arren –Línea Táctica proiektu misteriotsua edota *Syntorama* fanzine eta irratsaioa izan daitezke horren bi adibide–, batez

ere Gipuzkoan sortzen ari zen hardcore mugimendu indartsuaren eragina izan zen, agian, azpimarragarriena. Araban ere ale interesgarririk utzi bazuen ere –Vitu's Dance–, Andoain eta Tolosa artean gertatutakoak utzi du arrastorik nabarmenena ondorengoengan. Ruido de Rabia eta BAP!! aipa genitzake, desioak gidatutako jardunean rockari abiadura eta indar dosi bortitzago bat itsasteaz gain, beste iruditeria eta filosofia batzuk –dela *zuk zeuk egin* jarrera, anarkismoa edota ekologismoa– batu zizkiotenen artean. Iparraldean, bitartean, Voodoo Muzak taldeak bere ibilbide oparoa hasi zuen 80ko hamarkadako bigarren zati hartan, gerora fruitu ezin ugariagoak emango zituen.

90eko hamarkada iritsiko zen gero, estetika zaratzatu batek inoizko arrakastarik handiena lortu zuen garaia. Bilbo eta Getxo inguruak eta Bidasoako bailarak izango ziren horren adierazle nagusi, baina ez bakarrak. ●

Bakarrik dihardu egun musika egiten, musika ematen. Harat-honat. Baina beti lekuak, denborak eta doinuak partekatzeko xedez. Esperientziak “konfrontatzeak” aberasten du musikari modura.

TESTUA | **GORKA EROSTARBE LEUNDA**
ARGAZKIA | **DANI BLANCO**

Lotsatitzat du bere burua Paxkal Irigoyenek (Ainhize-Monjolose, Nafarroa Beherea, 1988). Ez oholtzan bakarrik; apal hitz egiten du, intonazio kantari leun batez. Baina ez horregatik konbikziorik gabe. Lau bat hilabete egin ditu Zumarraga-Urretxun bizitzen, Gipuzkoan. Eta hango taberna batean hartu gaitu: “Maite ditut tabernak kontzertuak emateko ere”. Makina bat musika proiektutan aritua da: dozenatik gora – Tud, Zezenaren taldea, Behi Bideko Andere Xuriak...–, baina 2017an plazaratu zuen lehen diskoa bere izenez: *Kontsumo produkto*. Produkto izatetik urrun, bazter ugari ezagutu, haietan esperientziak bildu eta berea ematea du laket. Europar barrena bidaiatzea eta esperientziak biltzea du orain egitekoa. Bartzelona, Italia, Berlin... Datorrena datorrela.

Musikari alderraitzat duzu zure burua?

Baietz esango nuke. Azkenaldian bakarrik ari naiz musika egiten, ohitura hori hartu dut, eta bakarrik aritzean errazagoa da mugitzea. Ez ditu gauza onak soilik, baina alde on horietako bat da arintasuna, mugikortasuna, ez duzu talde batean aritzeak duen pisua, konplexutasuna.

Batetik bestera joate horretan zer ikasten du musikari batek?

Ezinbestean zure erosotasun eremutik ateratzea dakar, publiko berri eta desberdinen aurrean aritzea, eta horrek esperientzia berriak ematen dizkio musikariari.

Europara joateko asmoa duzu orain. Musika esperientzia berrien bila?

Benoa, datorrena datorrela, baina gustatuko litzaidake jende berria, musikari berriak eta musika berriak ezagutzea, bistan da. Gauzak ikasi nahi nituzke, ideiak pilatu eta horrekin guztiarekin disko berri bat atera, zergatik ez. Hori bai, auskalo nola izango den prozesua.

Zuk bezala hainbeste musika instrumentu jotzen dituenak, zer eramaten du kanpora luzerako doanean?

Bidaia honetarako erosi dut zaku handi bat, eta hor sartzen dut saxofoia, sintetizadorea, mahaia, kableak... Ahal den guztia. Pianoa ez. Baina gitarra bai, beti bizkar gainean.

Zumarraga-Urretxun ibili zarelarik hiruzpalau emanaldi ikus-entzun dizkizugu, eta guztiak aski desberdinak. Txost! taldearekin aritu zara, baita Albarekin ere. Hala ulertzen duzu musika, beste musikariekin kolaboratzea, partekatzea?

Bai. Besteekin aritzea da musika, ikasten dituztu kanta eta molde berriak, eta denbora eta leku bat partekatzen duzu hala. Baidira musika batzuk gustukoagoak egiteko entzuteko baino, eta alde-rantziz ere gertatzen da, baina jende onarekin topatzen zarelarik zergatik ez... Txost!-ekin izugarri-zeko askatasuna izan dut nire ekarpe-

na egiteko, hasieran gauza txikiak eginez eta poliki-poliki taldearen soinuaren sartuz. Haiek ere hala ibiltzen dira, doinuak libreki joz eta ederra da hori. Alba taldearen disko berria aurki aterako da, badituzte bi kanta zeinetan tronpetaren agertzen den eta zuzeneko horretan eskatu zidaten tronpetaren zati horiek egin nitzan. Eta asko gozatu nuen, ikaragarriko kontzertua eman baitzuten.

Dantza ikuskizun baterako musika ere aurkeztu zenuen zinema aretoan. Zuk konposaturiko musika entzun zen, iluntasun erabatekoan, baina ez zuzenean joa.

Senperekoko dantza konpainia bat da Elirale, eta *Artha* dantza ikuskizuna ondu zuten. Galdegin zidaten soinu banda sortzea eta musika hori sortu nuen iaz. Ikusgarriaren dako musika da, zuzenekoetarako. Nik disko batean ere bildu nahi nuen, ohitura hori baitut. Ez dakit erabaki ona den edo ez hori gaur egun, baina... nik hala nahi nuen. Urtebetez-edo aritu nintzen musika bat sortzen eta gero ez

“

Saiatzen naiz muga estilistikorik ez izaten, dena sartzen baitugu lauki txikietan

da interneten entzuteko aukerarik ere. Eta beharra sentitu dut erakusteko egin dudana lana. Gaur egun ikusgarriarekin batera entzuten ahal da, eta horregatik egin genuen zinema aretoan musikaren beraren entzunaldia, ilunpetan. Urruñan eman genuen Zinegin festibala kari, eta Zumarragan ere bai, Kalegorrian elkartearen laguntzarekin.

PAXKAL IRIGOYEN, MUSIKARIA

"Publikoaren isiltasuna gehiegizkoa ere izan liteke"



Halako emanaldiak errepikatzea gus-tatuko litzaizuke?

Bai, baina interneten egotea nahi nuke. Internet da musika zabaltzeko manera onena. Eta era berean da manera onena diskorik ez saltzeko. Zineman entzutea-rena izan da tarteko zerbait baina jakinik ez dela manerarik onena diskorik saltze-ko. Baina bada manera berri bat musika entzuteko. Egun sakelakotik entzuten baitugu ia dena, eta kalean, alboan trafiko-a dugula eta jendea builaka...

Zineman ez, gaztetxean baizik, eman duzu berriki Josu Martinezek berres-kuratutako Gure sorlekuaren bila filmari zuk jarritako musika. Hori bai zuzenean emana.

Iazko urrian eskatu zidaten hari musika jartzeko. Filmaren bertsio laburrago bat musikatu nuen, eta pentsatu nuen ondo legokeela zuzenean ere ematea, irudie-kin batera eta hara...

Beste batean maitasun kanten zure moldaketekin osatu zenuen kontzer-tua, taberna batean. Egun ez dira boga oneko maitasun kantak...

Tira, maitasun kantak baino gehiago izan ziren emozionatzen gaituzten kanten bertsioak; baina egia da horietako asko maitasun kantak zirela. Badira kanta batzuk denok hasten garenak boz goran abesten. Horietan jarri nahi nuen fokua. Taldetasunean abesten diren horietan, nahiz eta ez diren *hit* izateko sortuak izan. Eta halakoak taberna edo giro ba-tean ematea da konfrontatzeko modu bat, ea jendeak zein erreakzio...

Musika ulertzeko zure ikuspegi zaba-laren seinale da hori guztia.

Saiatzen naiz muga estilistikorik ez izate, dena sartzen baitugu lauki txikie-tan. Eta hitz batek hainbeste gauza esan ditzake era berean. Rocka hartzen ba-dugu; denek egiten dute, dugu, rocka. Rockak zer esan nahi duen ere ez daukat garbi egun.

Baina saiatzen zara estilo anitzetara zabaltzen...

Joera dugu gaztetatik estilo bat edo beste ez zaigula gustatzen esateko, eta agian da ez dakigulako sartzen estilo horre-tan, ez dakigulako dantzatzeko edo hura jotzen... saiatzen naiz belarriak irekita izaten, besterik gabe.

Zure kontzertuetan jendeak dantza gehiago egitea gustatuko litzaizuke?

Bai, nire musikan alde hori nahiko nuke landu, ezbairik gabe, jendea horrantz eramateko poliki-poliki. Dantzari talde batekin ibili naiz dozena bat urtez, eta anitz egiten dute dantzan, taldean, ba-karrik, bikotean... nahi duzun moduan. Festa egiteko manera onena da.

Berdin jotzen duzu tabernan, gazte-txean, kalean, zinema aretoan?

Ez bortxaz. Niretzat garrantzitsuena ongi pasatzea da. Eta hori baldintza ekon-omikoez haragokoa da, nola zaintzen zaituzten, errespetatzen den zuk egiten duzuna, baldintza teknikoak... Baldin-tza ekonomikoek ez dute beti asebetet-zen, nahiz eta garrantzitsuak izan. Beste zerbaiten bila ere ibiltzen gara. Leku batzuetan isiltasunean entzuten zaituzte, eta ederra da hori, baina batzuetan pu-blikoaren isiltasuna gehiegizkoa ere izan liteke.

Aitzitik, gaur egun musikariak asko kezatzen dira publikoaren isiltasun ezaz.

Normalean gure proiektuak nahiko errespetatuak izan dira, inti-mistak izan direlarik. Beste batzuetan hain intimistak izan gabe isiltasun larre-gizko bat nabaritu dugu. Baina isiltasuna bilatu dugunean halako espa-zioetara joan gara; eta hala ere izan dugu espe-rientzia txarren bat edo beste, baina guk geuk ere ikasi dugu gauzak hobeto hartzen eta hobeto lantzen.

Kontsumo produktu zure lehen dis-koak oihartzuna izan zuen. Musika, kultura, kontsumo produktu soil bihurtu dugu?

Bihurtu badugu, aspaldi bihurtu ge-nuen, baina gehiago ari ginen interne-tek musikan izan duen eraginaz. Ba-dira musikan gauza eder harrigarriak egiten direnak, eta maleruski horien berri internetez jasotzen dugu. Hori da kontradikzio nagusia. *Badok* atarian egunero ibiltzen bazara, topatzen di-tuzu musika talde eta doinu harrigarri batzuk, eta ez dut uste hori kontsumo produktu soil denik.

Internet bizi duzu kontraesan handi modura?

Bai. Izugarrizko tresna da, baina ikusten duzu gauzak aldatu direla eta aldatuko

direla... Eta, teknologia nola erabiltzen dugun da kontua. Askotan hor ikusten dut jendea zuzenekoetan sakelakoari be-gira, edo irudiak atera eta atera...

Ez zaizu gustatzen batere irudiak ate-ra diezazkizuten, ezta?

Ez, batere ez. Esan izan dut mikrofonotik ere, baina ez dakit hori den bidea. Batzue-tan emanaldiaren aurretik egiten nuen *performance* txiki bat, eta mezua beste era batera pasatzen saiatzen nintzen. Zenbaitzuk gaizki hartu izan didate. "Nor zara zu hori esateko? Askatasun bat kentzen diguzu...", halakoak. Orain noizbehin-ka esaten dut eta noizbehinka paso.

Badok askotan aipatzen duzu. Tresna garrantzitsua iruditzen zaizu?

Bai, behar zen halako tresna bat. *Badok*-en bazen artikulua bat esaten zue-na gutxi asko betikoa: "Izan zen Ez Dok Amairu, izan zen RRVa... noiz izango da hurrengo iraultza?". Niretzako *Badok* izan da, horrelaxe. Internet sartu den moduan hura izan da iraultzarik handiena mun-duan azken hamabost urtean; gizarte

“

Niretzat garrantzitsuena ongi pasatzea da. Eta hori baldintza ekonomikoez haragokoa da

guztia irauli du. Eta euskal musi-kan izan den gauzarik onena izan da *Badok*. Bestela in-terneten galdua zen eus-kal musika.


Batez ere euskal mu-sika entzuten duzu?

Azkenaldi luzean bai. Atzerriko musika bat entzuten baduzu, gehienetan izaten da makinaria handi

batek bidea prestatu diolako zuk entzun dezazun. Eta sarri makinaria ho-rren atzean dagoena ez da bortxaz kan-ta den bezain polita. Munduan musika on asko dago, ez da dudarik, baina gure belarrietara iristen bada... horretarako bidea izan duelako da gehienetan; be-gien parera iristen zaizkigun politikarien irudiak bezala. Hala ere gauza batzuk beti entzuten ditut, garai batean entzu-ten nituenak, esaterako Björk.

European zehar bidaia egin eta gero zerekin zinateke gustura?

Gustatuko litzaidake konfrontazio be-rriak gaintzea, leku eta jende berria-ren aurrean. Musikalki eta eszenikoki konfrontazio batzuk gaintzea. Lotsa geruzaz geruza kentzen den zerbait da. Oraindik lotsa handia sentitzen baitut agertoki gainean. Denborarekin okertu ere egin zait, gainera. ●



NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA


Mussoliniren gorpu ibiltaria

Giulino di Mezzegra (Italia) 1945eko apirilaren 28a. Benito Mussolini diktadore faxista eta Clara Petacci maitalea fusilatu zituzten, Suitzara ihesi zihoazela partiano komunista talde batek atzeman ondoren. Biharamunean, Milango Loreta plazako gasolindegian, gorpuak buruz behera zintzilik jarri zituzten, eta jendetzaren esku utzi.

Handik egun batzuetara Nazio Askapenerako Batzordeak diktadorea Milango Hilerri Nagusiko izenik gabeko hilobi batean ehorteza erabaki zuen, haren jarraitzaileen peleginazio gune bihur ez zedin. 384. hilobian sartu zuten, baina handik urtebetera, 1946ko apirilean, faxista talde batek gorpuak non zegoen jakin zuen. Mussoliniren arrastoak lapurtu eta auto baten maletategian sartu zituzten, haiekin zer egin garbi jakin gabe.

Egoera (eta kiratsa) eutsiezina zenez, Sant'Angelo komentuko apaiz bati uztea erabaki zuten. Hasieran, apaizak ez zuen ezer esan, baina lapurretaren berri zabaldu zenean, Milango artzapezpikuari esan zion diktadorearen gorpuak hantxe zegoela. Elizako goi karguak gobernura jo zuten zuzenean. Orduan, gorpuak isilpean hiriko aldirietako beste komentu batera eramatea erabaki zuen, Cerro Maggiorean.

Baina han ere ez zuen luzaroan atsedeen hartzeko aukerarik izan. Aldarepean presaka ehortzi zuten, berehala meza entzutera hurbildutakoak kiratsa suma-



FRANCISCO FRANCO ETA BENITO MUSSOLINI BORDIGHERAN (ITALIA), 1941EAN. MUSSOLINIREN GORPUA BATETIK BESTERA IBILI ZEN URTETAN; FRANCORENA MUGITZEKO, ORDEA, OZTOPOA ETA TRABA BESTERIK EZ DAGO.

tzen hasi ziren eta komentuko arduradunak gutxitan erabiltzen zen gela bateko armairuan sartu zuen *Ducea*. Eta hantxe egon zen 1957. urtea bitartean.

Urte hartan gobernuak familiaren eskakizunei men egin zien, Mussolini armairutik atera zuten, eta Predappio jaioterrian familiak zeukan kaperan ehortzi. Hantxe dago egun, eta urtero milaka kuxkuxero eta jarraitzaile hurbiltzen dira bertara. Monumentu arranditsu batean ez dago, behintzat, eta 1952an Italiako Gobernuak faxismoaren gorespina lege debekatu zuenez, peleginazioak legea hausten duela iritziko baliote, neurriak

hartzeko aukera legoke, 2011n Alemanian Rudolph Hessen arrastoeekin egin zuten moduan.

Hitlerren albokoa Spandauko espetxean hil zen 1987an eta orduz geroztik Wunsiedel herriko hilerrian zegoen ehortzita. Neonazien peleginazio eta omenaldi gune bilakatzen ari zenez, 2011ko udan, hilobia eraitsi zuten, eta Hessen hezurak hobitik atera, erraustu eta itsasoan bota zituzten.

Bitartean, Madrilgo San Lorenzo del Escorial udalerriko Erorien Haranean, diru publikoz mantentzen den ondarean... ●



Bizitzaren historia berridazten

Qingjiang (Txina) aztarnategian duela 518 milioi urteko fosilak aurkitu zituzten 2007an. Orain, azken 12 urtetan egindako lanaren emaitza argitaratu berri dute *Science* aldizkarian.

Orotara 101 espezieren fosilak aurkitu dituzte eta horietatik erdia baino gehiago ezezagunak ziren orain arte; besteak beste, argazkian ageri den

Daihua sanqiong espeziea, marmoken, ktenofooren eta esponjen arbasoa izan litekeena. Hipotesia baieztatuz gero, ktenofooroak –orrabi marmokak ere deitua– esponjen aurrekoak eta, hala, animalia formarik zaharrenak liriteke. Horrenbestez, Kanbriar Aroko fosil hauek bizitzaren zuzaitzaren adar zaharrenak aldatzea eragin dezakete. ●



LIBURUA

I tuoi occhi



POESIA KAIERA CESARE PAVESE

SUSA, 2019

Itzultzailea: Ion Olano Carlos

IGOR ESTANKONA

Cesare Pavesearen nobela eta ipuin neoerrealistek beharbada ez, baina bere poesiak gaur-gaurkoa izaten segitzen du. Uzta urriagoa izan arren neurtitzetan, hordigarria da ardo hori: Pavesearen irudien potentzia. Eta irudi horietatik unibertsalena hartu eta Xabier Letek jarri zuen “Etorriko da zure begiz heriotza”, eta Migel Anjel Unanuak “Etorriko da heriotza eta zure begiak izango ditu”, eta Itxaro Bordak “Heriotza etorriko da eta zure begiak ukanen ditu”, eta Joseba Sarrionandiak “Helduren dun heriotza eta heure begiak ukanen dizkin”, eta Txema Larreak “Heriotzea jinen da eta zure begiak idukiko”...

Eta Ion Olano Carlosek “Helduko dun heriotza hire begiz” dio bere itzulpeanean, Munduko Poesia Kaiaren 29. zenbakian, Pavesearen (Santo Stefano Belbo,


Cuneo, Piemonte, 1908–Torino, 1950) poesia triste, ederrari dedikatutako hirurogei poema amultsuko liburu fin eta era berean amaigabe honetan.

Cesare Pavesearentzat poesia suizidioarako bere bidean ehundutako beldur eta pesimismoen sarea da, ez zuena, finean, salbatu. Hautsen kontra ez baita sarerik. Torinoko Roma hotelean lo egiteko bere medizinarenean hamabi, hogeitak, batek jakin zenbat zorrotxo hartu zituen batera; han joan zen: “Oro dun gauza bera/ igaro denez denbora/ egun batez heldu hintzen/ egunen batez hilko haiz./ Norbait zendu egin zunan/ aspaldian,/ norbait saiatu zena/ baina jakin ez zuena”.

Melville, Faulkner, Whitman, Dos Passos. Narratiban gizaki berri komunistaren arrastoa igartzen zitzaion gisa berean Pavesearen poesia beste estetika batek bizi

du, poesia du arean tragikoagoa, eta ematen du batzuetan bizitza eta zoriona ukatu egiten dituela, ez diola utzi nahi bere buruari ezelango ametsik: “Sufrituko dinagu egusentian/ udaberriaren bisaia”.

Axolagabeki egiten die so gauzei. Heriotzak du dena mediatizatzen bere poesian. Hain da distantea. Eta hala ere bulkada hor dago, erreala da bere begirada, poesia formal horren atzean bada bihotz bat, gainontzekoekin komunikatu gura duena, bizitzako arazo zentralizatutak, zelana apurtu bakardadearen katea, zelana jarri harremanetan besteekin. Idaztea ere horrextarako bidea baino ez zen izan beretzat: “Lur baten antzekoa haiz/ inork esan ez duena./ Hik ez dun deus itxaroten/ ez bada hitza/ hondotik erneko dena/ adaxka arteko fruituaren antzera”. ●



© KONTZERTUA

Fresko eta arina



ZUZENDARIA: ASIER PUGA (ARGAZKIAN). SOPRANO: HELENA ORCOYEN.
 AURKEZLEA: ANA EGUIAZABAL. GIDOIA: MIKEL CAÑADA.
 EGITARAU: BELLINI, LABOA, ROSSINI ETA DONIZETTIREN OBRAK

MONTSERRAT AUZMENDI DEL SOLAR

Aspalditik badabil Euskadiko Orkestra Sinfonikoa saiakerak egiten herritarrei, oro har, eta gazteei, bereziki, musika klasikoa gerturatzeko. Asmo honekin ziklo berezi bat du orkestrak, Musika Gela izenekoa hain zuzen ere. Gaztetxoei zuzendutako ziklo honetan saio labur eta didaktikoak aurkitzen ditugu, eta bakoitzean musikaren arlo berezi bat eta ikuspuntu konkretu bat lantzen da.

Aldi honetan, nahiz eta egitarau interesgarria ekarri Euskadiko Orkestrak, jende gutxi ikusi genuen Principal Antzokian. Pena. Pianissimo izenburuarekin, emakume-ahots inpostatuaren nolakotasunak arakatzea proposatu digu Orkestrak, eta ahotsaren analisaren bitartez musikaren ñabarduretan eta hauen terminologia espezifikokoan sa-


kondu da errezitaldi honetan. Eta hau guztia ordu betean.

Belliniren Norma operaren oboerurarekin hasi zen kontzertua. Asier Puga zuzendari gazteak jakin zuen txispa ateratzen orkestratik. Maisutasunez menderatu zituen lan honek dituen ñabardurak, eta emaitza koloretua lortu zuen. Jarraian, Mikel Laboaren obra bitxi bat entzun genuen. Gernika pieza honek (Ramon Lazkanok orkestratua) badu Laboaren munduaren kutsua, erdi inpresionista, erdi ameslaria. Agian orkestrazio distiratsuago batekin bestelako erakargarritasuna izango luke, baina atsegina suertatu zen interpretazioa.

Belliniren La Sonnambula-ren aria eta cabaletta Helena Orcoyen sopranoaren lehen pieza izan zen saio ho-

PIANISSIMO SAIOA EUSKADIKO ORKESTRA SINFONIKOA MUSIKA GELA ZIKLOAREN BARRUAN

Gasteizko Principal Antzokia
 Martxoaren 22a



netan. Aukera izan zuen abeslariak publiko gazteari erakusteko aria batean aurkitzen diren mila zailtasun eta deabrukeriak, eta zein abilezia eduki behar den hauek salbatzeko. Teknika ondo ikasia du soprano honek, agian zertxobait forzatua une batzuetan, baina eraginkorra duarik gabe. Bestalde, teknikatik aparte, adierazkortasuna ere erakutsi zuen Helena Orcoyenek, dramatismo izugarria azaldu baitzuen Donizetti-ren Lucia di Lammemoor operaren eroaldiaren eszenan.

Errezitaldiaren gidaria Ana Eguiazabal izan zen. Txukun bete zuen bere papera, Mikel Cañadaren gidoi eskasak jarraituz. Hau izan zen agian alderdi ahulena. Gidoiek ez zuten gehiegi aporteratzen eta ez dakit egokiak ziren han zegoen publikoarentzat. Bestela, ondo. ●



Bortxaren xarma

MARTA SENDIU

Gasteizko Jimmy Jazz aretoa ohi baino ilunago dago, beltz. Olana batek laguntzen du belztasun hori sakontzen. Eszenatoki gaineko fokuek bakarrik argitzen dituzte Vulk-eko taldekideak eta momentu batetik bestera, oholtza, boxeo ring bilakatu da.

Andoni Egiluzek, boxeolari zalu bilakatuta, gorputza makurtu eta posizio egokia hartzen duenean, amorrus betetako gantxo bat jaurtitzen du airera. Bortizkeria keinu horiekin batera, bere aldaken mugimenduak talde osoaren erritmoa eramaten laguntzen du. Eta haren ahots indartsu eta sakonak, entzulegoaren gorputz atal guztiak zeharkatzen ditu.

2017an kaleratutako Beat Kamerlanden estreinako albumeko Zaldia Burning abestiarekin eman diote hasiera kontzertuari. Gitarra garden eta ez oso gogorrekin.

Underground estetikari keinu eginenez, gerri gaineko fraka jasoek, galtzerdi zuriek, txima luzeek, biboteek eta *old school* tatuajeek, post-punk musika estiloan barneratzen laguntzen dute. Nortasun handiko taldea direla adierazi dute, bai janzteko moduari dagokionez, bai erakutsitako grinaren bidez.

Musikaren doinuak gidatutako tranzte edo estasi egoeran sartuta daudela ematen du. Lau musikariak bihurrierian oinarritutako biolentzia jolasean arituko balira bezala.

VULK TALDEAREN KONTZERTUA

NOIZ: otsailak 22

NON: Gasteizko Jimmy Jazz



Ground for Dogs bigarren album honetan, baxuaren presentzia nabarmentzen da, baita erregaitza den gitarra ere. *Behiaren begirada* izan da kontzertuaren erdialdean abestu duten euskarazko kanta. Eta itxurazko lasaitasuna ekarri du aretora, erritmo lasaiago batzuekin. Atal instrumentalagoak ageri dira bertan eta burutik kendu ezin daitezkeen armoniak.

Zorotasunaren lilura dago talde honen zuzenekoetan. Bortxaren beldurrak sakontzen zaitu kontzertuan. Mugimendu lizun eta bortizetatik begirada kendu ezinik. Doinu komertzialetatik urrundu eta haien nortasuna markatzen duen 80. hamarkadako erritmoetan barneratzen zaituzte. Indarkerian edertasuna bilatzen laguntzen. ●



Puzzlea

KOKA EZAZU PIEZA BAKOITZA DAGOKION TOKIAN ETA ITZIAR ALKORTAK, BAKTERIOEN IKERLARIAK, ESANDAKO ESALDI BAT IRAKURRIKO DUZU.



Sudokuak

BETE ITZAZU GELAXKAK 1ETIK 9RAKO ZENBAKIAK IDATZIZ, ZUTABE, LERRO ETA 3X3 KOADRO BAKOITZEAN ERREPIKATU GABE.

1					8	4	7
	6		4	5			3
	3	7			1		6
	2	3		4	9		
9			8				2
	4	9		2		1	
7	5			1	3		
3			6	5		7	
4	9	2					1

ERRAZA

	8	6			1	9		3
		1		4				5
							1	
5			6					8
		4	8		2	5		
	3				5			2
	2							
7				9		1		
1		5	4			2	3	

ZAILA

Azkenak

KOKA EZAZU ERANTZUN BAKOITZA BERE TOKIAN. KOLOREZTATUTAKO LAUKIETAN EGOKITUTAKO HIZKIAK BATUZ BIZKAIKO BI MENDIREN IZENAK LORTUKO DITUZU.

A

Garratza

Kantari

Ikatza egiteko txondor

Juduen gurtza-tokia

Ahalmen guztiaz egiten den saio

B

Atseгина

Hizkuntza bakarra dakiena

Bizkarraren gainaldea

Plan

Baratxuri

EBAZPENAK

4	9	2	8	3	7	5	6	1
3	8	1	6	5	9	7	2	4
7	6	5	4	2	1	3	8	9
5	3	4	9	7	2	2	6	1
8	3	4	9	7	2	2	6	1
9	1	7	5	8	6	4	3	2
2	4	3	7	9	8	1	5	6
6	2	8	3	1	4	9	7	5
2	4	3	7	9	8	1	5	6
8	7	6	1	4	5	2	9	3
1	5	9	2	6	3	8	4	7

ERRAZA

1	6	5	4	8	7	2	3	9
7	4	8	2	9	3	1	5	6
3	2	9	1	5	6	7	4	8
8	3	7	9	1	5	4	6	2
6	1	4	8	3	2	5	9	7
5	9	2	6	7	9	8	1	4
2	5	3	7	6	9	8	1	4
9	7	1	3	4	8	6	2	5
4	8	6	5	2	1	9	7	3

ZAILA

PUZLEA: "BIGAREN MUNDU GERRAZ GEROTIK BARRA-BARRA ERABILI DIRA ANTIBIOTIKOAK, MEDIKUNTZAN BAINA BAITA ABELTZAINTZAN ERE: NEURRIK GABE ERABILI OHI DIRA." AZKENAK: A: MINGOTSA, ABESLARI, IKAZTOBI, SINAGOGA, AHALEGIN. (SAIBGAIN) B: ADEITSUA, ELEBAKAR, SOBALDA, EGITASMO, BERAKATZ. (ARAMOTZ)

Jean-François Caron

MEATEGIKO UME EKOLOGISTA



HONDAMENAREN ARKETIPOA

“Meategien herriko umea naiz, banan-banan guztien heztea ikusi duena. Klima nahasmendua eragin duen energia gartu dugu urte luzeetan, gure meatzarien osasuna ahantziz eta bazterrak kutsatuz. Gure identitateaz gogoetatu dugu eta progresiboki konturatu gara iraunkortasun ezaren arketipoa ginela. Ikatzaren ekoizpena mugatzen zen gurea”.

“Berpizte demokratikorik gabe trantsiziorik ezin izango da egon”

Testuingurua eta mentalitateak aurka izanda ere, gauzak alda daitezkeela frogatzen digun pertsona dugu Jean-François Caron. 1855ean herriko lurpeetan ikatza kausiturik, hamarkada luzeetan meatze-industriari osoki bideratua izan da Frantzia iparreko Loos-en-Gohelle herria. Ekonomiaren izenean, ingurumena eta meatzarien osagarria suntsituz. Bertako auzapeza dugu Caron, herritarrak konbentziturik, hauekin eskuz-esku trantsizio ekologikoa errotzen dabilena.

TESTUA ETA ARGAZKIAK | **JENOFA BERHOKOIRIGOIN**

Meategien erreinuko auzapez bat zara.

Aspaldiko militante ekologista bat izaki, erabat itxuragabea da auzapez izatea, meatze-sistemaren baitako historiaren hutsegite bat naiz! Eskualdeko kontseilari hautatu ninduten hori aitzin. Berehala, meategi lurraldeak birmoldatu eta arraberritzearen erronkan zentratu nintzen. Iraganetik irakaspenak ateratzen dakien eskualdea izan beharko ginela argi nuen.

Arraberritzeari nola lotu zineten?

Garenaz kontzientzia harrarazi nahian, galdera kulturalei lotu ginen, hortik burua altxatu eta alternatibak eraikitzen hasteko. Ez geneukan arras argi nora joan nahi genuen, baina arazoei erantzuteko esperimentazioak biderkatzen hasi ginen. Adibidez, isolamendu txarreko etxebizitzak ukanki, zaharberritzeetan inbertitu genuen, energiarik ez galtzeko. 1997tik aitzina, hots, aldaketa klimatikoa oraindik aipatzen ez zen garaian.

Nola lotu aldaketari 7.000 herritarrak?

Hau genuen erronka, gehiengoak iraganera itzuli eta meategiak ireki nahi lituzkeelako. Guk ordea, ekonomia eredu berri bat garatzeko hautua egin genuen. Ekonomiak garrantzia handia du eta behin eta berriaz azpimarratu izan dut ekonomia eredu bat genuela esku artean. Natura berreskuratzeari lotu ginen ere. Zein ez da ongi sentitzen naturan? Europako diru-laguntzak energia berriagarriari loturiko lanbideetan inbertitu ditugu.

Herritarrak dinamikan sartu dira?

Berritzaile eta dinamiko gisa definitu izan da udala, komunikabideek interesa adierazi digute. Hori gustuko dute herritarrek!

Izugarria da errango dudana baina sostengua usu sostengua dutenei doa; *winner* izatea errazagoa da *loser* izatea baino. Erran behar dut 25 urtetako ekintza politikoaren emaitza dugula.



ONDAREARI OSO ATXIKIAK IZAKI, UNESCOK HERRIKO MEATZE-HONDAKIN METAK JENDARTEAREN ONDARE IZENDATZEA LORTU DUTE 2012AN.

Guztiak zuen ondareaz harro.

Noski. UNESCO erakundeak herriko meatze-hondakin metak jendartearen ondare izendatzeko eskaera abiarazi nuen, eta 2012an lortu genuen. Meatzarien familiak oso oso harro daude!

Aldaketa kulturala da.

Aldaketa kulturala baita herritarren inplikazioa ere. Elkarrekin gogoetatu dugu, egindakoaz sistema bilakaraketeko asmoz. Bepizte demokratiko bat behar dugu, hori gabe transiziorik ezin izango da egon.

Desobedientziarekin lotzen duzu berrikuntza.

Pentsamendu bakarra urratu dute berrikuntza bat egin duten guztiek. Lehen etxalde biologikoa, lehen eguzki-instalazioa... Zerk egiten du lurralde bat ezberdintasun hauek errezibitzeko prest egotea? Konfiantzak. Deleuze filosofoak zioen "kolektiboen kalitateak du berezitasunen adierazpena segurtatzen". Begira gure auzo herriari,

Hénin-Beaumont eskuin-muturraren manupeko herria da, boterean dira. Bi herrien arteko aldea ikaragarria da, karrikan ibiltzarekin sendi duzu ezberdintasuna.

Zein joera da nagusi?

Maluruski, Frantziaren drama handiena hau dugu: mesfidantza orokortuta daukagu. Fidagaiztasunarekin ez dugu berritzen eta pentsamendu bakarrean gelditzen bagara, sistema etengabearen errepikatzen gabiltza.

Nola orokortu aldaketa?

Bestela egin daitekeela erakusten diguten frogak baditugu mundu mailan. Lurralde horiei begiratu behar diegu, ikusteko zer den tokiko errealitateari lotua eta zer den ezaugarri orokor, batetik bestera aldatuko ez dena. Hortik estrategia orokor batzuk planteatu behar dira.

Ingurumenaren eta Energiaren Institutuari zein Estatuari erraten diet esperimentazio eskubidea uzteko. Ener-

giari dagokionez mila aterabide daude, Estatuak orokortzeko hautua eginen balu, konpondurik genuke arazoa.

Nola lortu eragina?

Erantzuna ez dator tokian-tokitik ez-eta globaletik, bien arteko topaketatik dator. Kapitalismoaren joko-arauak ez baditugu aldatzen, galdua dugu eta ez du balio gehiago horretaz gogoetatzea.

Urgentziatzko afera dugu.

Erlojupeko lasterketa dugu, heriotzaren kontrako lasterketa, zeinetan gu aitzina goazen baina sistema kapitalista ere bai. Eror gaitzek eta segur da istripu larriak biziko dituela gure jendarteak. Agian piztuko gaitu eta garapen berrirako ditugun aterabideek lekua irabaziko dute.

Bihotzez espero dut irabaziko dugula. Espero dut elkartasunak irabaziko duela. Aldaketara goaz, baina zein aldaketarantz? Faxismoaren igoera ere hor dugu. Espero dut elkartasunak eta alternatibek irabaziko dutela. ●



Gazte Topaguneak karpa berezi bat edukiko du zaharrak direla onartu nahi ez duten ezker abertzaleko kideentzat



BIGARREN LERROAN, "MARTXOSO MATXINATUEN KARPAKO" ORDEZKARIAK.

Aurtengo Gazte Topagunearen nobedade nagusia aurkeztu du Ernaik prentsaurrean: "Martxoso Matxinatuen Karpa". Lizarra-Garaziko akordioa sinatu zenerako HBko zerrenda batean aurkeztuak ziren ezker abertzaleko "gazte" horiei eskainitako espazioa izango da, publiko horrentzat bereziki prestatutako animazioekin: Su Ta Gar eta Alaitz eta Mainerren kontzertuak, burusoil geratu direnentzat "Berresku-

ratu zure antzinako zimak" tailerra eta pontxo-jaurtiketa lehiaketa (zehaztu dutenez, gasolina gabe egingo da arrazoi ekologikoengatik). Ernaik ofizialki esan du "borrokarako konpromisoa transmititu izana" eskertu nahi dietela dagoeneko adin bat daukaten militantei. Estraofizialki berriz, zera baieztatu dute: "Karpa egikaritzea zen modu bakarra *putoviejo* horiek gure festa antolatzen ez hasteko". ●

Paulina Rubio eta mariatxiengatik barkamena eskatzeko exijitu dio Espainiak Mexikori



"Bai, ados, gure arbasoek *matxupitxu* fedebako gutxi batzuk akabatu, beste batzuk bortxatu eta ondasunak lapurtu zituzten, eta hori dena, bai, baina ostia, espainola erakutsi genien, eta horri esker, adibidez, gaur egun Real Madrilen partidetan *Marcaren* zuzeneko kontakizunak osorik jarrai ditzakete. Modernitaterako atea zabaldu genizkien", azaldu du Espainiako atzerri ministro Josep Elcanok. "Ez gara txikikeriengatik Mexikori barkamena eskatzen hasiko. Ez behintzat haiek barkamena eskatu arte Paulina Rubio, mariatxi eta telenobela jasangaitz horiengatik. Ezin duzue imajinatu zein gogorra den alderdiaren bazkari batera joan eta kubaten garaian jendea Iceta eta Odon Elorza rantxerak abesten hasia: 'Mexiko, Mexiiiiiii-koooo!', ETB1en bizi osorako kontratua duen bibotedun hori bezala... puuuf". ●

SAREAN ARRANTZATUA

Nor da nor?



Non dago Kim?



Hizkuntz
eskubide baten
urraketaz
informatzeagatik
epaituak

 #UtziArgiaBakean



**KAZETARITZA
EZ DA
DELITUA**

Bultza kazetaritza independentea

Egin zaitez ARGIAkoa:
[ARGIA.EUS/EGINARGIAKOA](https://argia.eus/eginargiakoa)

aek
21. korrika

2019ko apirilaren 4tik 14ra **GARESTIK GASTEIZA**

badator!



www.korrika.eus

